



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

EUSKALKIZ EUSKALKI




1.361'282

AG
S

Egilea: Rosa Miran Fagala

GLOTODIDAKTIKA LANAK 19




**Euskara Zerbitzua
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**

ET KANAJ ANTIADIDOTO 19

Egilea: Rosa Miren Pagola
Azala: Txopitea
© Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Eusko Jurlaritzza
I.S.B.N.: 84-7542-152-0
Legezko Gordailua: VI-776-84
Lehenengo Argitaraldia: 1984eko Abendua
Inprimatzailea: Gráficas Santamaría, S.A.
Domingo Beltrán, 2 - Vitoria.

Egilea: Rosa Miren Pagola

EUSKALKIZ EUSKALKI



Gasteiz 1984

AURKIBIDEA

Orrialdea

AURKEZPENA	7
SARRERA GISA	9
HELBURUAK	11
DIALEKTOLOGIA: EDUKI ZERRENDA	13
MATERIALAK	15
1. Grabaketak	15
2. Testuak	18
LAPURTERA - Sarakoa	22
XUBERERA	26
GOI-NAFARRERA - Iturengoa	30
BAXE-NAFARRERA - Baigorrikoa	34
BAXE-NAFARRERA - Heletakoa	40
BIZKAIERA - Lezamakoa	46
BIZKAIERA - Mundakakoa	52
BIZKAIERA - Gorozikakoa	58
GIPUZKERA - Astigarragakoa	62
GIPUZKERA - Azpeitikoa	66
EUSKALKIETAN IRAKURTZEKO ZENBAIT TESTU	71
BIBLIOGRAFIA NAGUSIA	77

AURKEZPENA

Lekeitioko euskara ez dago ulertzerik. Zuberoan hobe frantsesez. Baserritarrekin nekeza da hitzegitea. Arrantzaleen hizkera oso berezia da. Euskara idatzia, asmakeria hutsa.

Horrelako iritziak usu entzun daitezke oraindik ere euskaldunon artean, eta aitzaki dira ez gutxitan erdaretara jotzeko, euskarari komunikatzeko balioa etengabe ukatuz. Ordea, gaztelaniaren nahiz frantsesaren helduleku tentagarri hori gabe biziko bagina ez genuke hainbesteko «oztoporik» aurkituko segurki gure hizketalagunekin elkar konprenitzeko. Azkar jabetuko ginateke elkarrengandik apartatzen gaituzten desberdintasun xumeez eta berbetaren poderioz normaltzat hartu ustegabeen.

Euskara batuak, dudarik ez, bide berriak ireki dizkigu azken urteotan, idatzizko euskararen mailan batez ere. Horratik, aurrera pausu horrek ez du esan nahi alde bateko edo besteko euskaldunok beste tokietakoen hizkera ezagutzen eta maitatzen saiatu behar ez dugunik, eta are gehiago geurea propioa, oinarri sendo hau ere ez baitugu askotan behar hainbat estimatzen. Euskalkiak dira euskara gorpuzten dutenak eta bertatik atera behar ditugu guztion hizkuntza nahi dugun horren osagaiak eta aberastasanak.

Euskalkiak ezagutzea, beraz, ez da soilik espezialista bakar batzuen egitekoa. Horregatik ematen zaio hemen hain tratamendu sinple eta zabala: hizkera desberdinak, ulermen mailan behintzat, ezagutzea da xede nagusia, eta ez fenomenoaren azalpen linguistikoa. Oraingo euskarazko «B» maila delakoa inoiz berregituratzekotan honelako ikuspegi batetik planteatu behar litzateke «dialektologia» alorra. Dena den, bienbitartean ere badugu jadanik honekin euskalkietara modu erraz eta aski zuzen batean (kasetez ere hornitua baitator) hurbiltzeko material egokia.

EUSKARA ZERBITZUA

SARRERA GISA

Ez da gaurko kontua dialektoa zer denaren eta dialektologiaren zereginaren edo funtzioaren eztabaida, ez eta dialektologiak linguistika barnean behar lukeen tokiarena ere. Bi nozio hauek —dialekto, dialektologia— oso aspaldikoak dira, hizkuntzari buruzko ikasketak bezain zaharrrak, izenak geroago agertu ziren arren.

Hizkuntza zer bizia da, eta horrek lilura aparta du ikastunentzat; hizkuntzak beti du berezitasun hori, baita aspaldiko mendeetara eramaten gaituzten agerpenetan ere, eta, azken batean, komunikazio beraren xarma baino ez da, ohizko xarma zaharra baina, bizitza berekin daramalako, beti berri gertatzen zaiguna. Pergaminorik zaharrenak ere bere momentu sinkronikoa du eta historiaren lekuko hila ez baina bizitzaren lekuko bizia da. Horregatik da hain zail hizkuntza bizia zehatz mugatzea zientzien sailean, eta horregatik hausten ditu hain erraz ezarri nahi izaten zaizkion toki nahiz denbora mugak. Horra nondik datozen linguistikan dialektologia eta dialektoak hizkuntzan ongi kokatzeko zailtasunak.

Bizitasun hori oraindik bizkorragoa da egungo hizkuntzan. Hizkuntza bizi hori batzea lan atsegina da, atsegina ezezik baita hunkigarria ere. Kontuak gero izaten dira, material bizi hori analisatu eta sailkatzeko orduan, muga finkotan sartu nahi denean.

Gure lana batez ere lehena izan da, hots, errazen eta gogokoena, baina bigarrenari ere neurritxo baten ekin diogu. Eta horrela jokatu badugu, ez da izan apeta hutsez edo errazkeriari jarraituz, aldez aurretik finkatutako helburuek horrela eskatzen zutelako baizik.

Lan honek 1982-83ko ikasturtean izan zuen sorrera. Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak bilera batzu egin zituen «B» titulurako programak birmoldatzeko, eta, beste batzuren artean, ni ere deitzeko begirune eskergarria izan zuen.

Plangintza horretarako jakintzagaietan dialektologiak ere bere tokia zuen, eta aztertzerakoan, «B» tituluaren helburuak kontutan hartuz, noski, garbi ageri zen euskara ongi ezagutzeko euskalkiak ere ezagutu egin behar zirela, baina gaurko hizketa bera, kalean eta baserrian ahoz aho erabiltzen dena, gaur egun komunikabide bizi bilakatzen dena.

Hori eskuratzeko bidea hizketa bera jasotzea zen. Bizitasun osoa errealtatean bakarrik ematen da, baina grabaketek ere asko laguntzen

dute euskalkia bera, bere ezaugarri fonetikoak gordez, emateko. Bestalde, bizitasunean gal daitekeena erraztasunean irabazten da.

Horixe izan da kasete hauek egiteko arrazoia: mintzaira baten lekukoa nahi den guztietan entzun ahal izatea. Gero, lagungarri bezala, testuak hitzez hitz idatzira pasatu dira, eta aldamenean euskara batura ere bai. Honela analisiak alde batera apropos utzi dira, ezaugarriak berez agertzen bait dira.

Besteak beste, lan honen xederik gogokoena euskalkiak —euskara!— dastatzera ematea da eta gehiagoren irrikaz uztea. Euskalkien bideak, nahiz mintzoz nahiz geografiaz, oso atseginak dira eta merezi dute ibiltzerik. Hemen aurkezten den erakusgarri hau izango ahal da komunikaziorako laguntza, eta hainbat hobe ezertan lagun baleza hizkuntza normatiboa denon artean egiten ere.

Bukatzeko, nire eskerrona adierazi nahi diot Hezkuntza Sailari, bai deitu ninduelako bai lan hau argitaratzea erabaki duelako. Eta bereziki, Ibon Olaziregi-ri eskaini didan laguntza zorrotzagatik. Grabaketetan parte hartu zutenei ere bihotzez eskertu nahi diet, beren laguntzarik gabe lan honek ez bait zuen argirik ikusiko. Eta horien artean bereziki, zenbait arrazoi tarteko direla, argitaratutako zintetan sartzerik izan ez dutenei. Eta senarrari: hainbeste zor diodan nire lagun eta laguntzaile hori.

HELBURUAK

Orokorra

- Euskalkien bidez, euskara hobeto menderatu.

Berariak

- Bizirik dirauten euskalkiak entzunez nahiz irakurriz ezagutu.
- Edozein euskalki entzunez ulertu.
- Edozein euskalki irakurriz ulertu.
- Edozein euskalkitako testu idatziak norberaren euskalkiaz erkatu eta elkartu.
- Edozein euskalkitako testu idatziak euskara batuaz erkatu eta elkartu.

Helburuen azalpena

Dialektologia egiteko era bat baino gehiago dago, nahiz hartzen den metodoaren nahiz jarraitzen diren irizpideen arabera. Bereiztasunak edo bide ezberdinak erdietsi nahi diren helburuetatik sortzen dira, azken batean.

Hemen, lantxo honetan, dialektologia sinkronikoa proposatzen dugu, hots, XX. mendean oinarrituriko dialektologia, hau da, egungo sinkroniari dagokiona, edo helburu berarrietan seinalatzen den bezala: 'bizirik dirauten euskalkiena'.

«Euskalki biziak» diodanean hauek hartzen ditut: Lapurtera, Baxe-Nafarrera, Zuberera, Goi-Nafarrera, Bizkaiera eta Gipuzkera. Sailkapen-tarako irizpideak ez datoz beti bat, baina ez dut uste, egun, sei horiek nagusizat emateko inork eragozpenik ipiniko lukeenik. Agian, norbaitek esan dezake Aezkera eta Zaraitzera falta direla. Bai, baina horiek Bona-parteren sailkapenean Baxe-Nafarreran sartzen dira, eta sailkapen hari jarraitzekotan, bi BN eta bi GN berezi beharko genituzke. Egia esan,

banaketa sei hauetan utzi dugu mintzaleen kopuru eta dentsitatea kontutan hartuta. Erronkaria, berriz, alde batera utzi behar izan dugu, zoritxarrez ez bait da mintzalerik, erdi galdutako bakarren bat ez bada.

Aipaturiko euskalki biziok landuta, uste dut helburu orokor eta nagusirantz ongi bideratzen garela. Bestalde, gai hau nori zuzentzen zaion ere kontutan hartu beharko da, eta horretarako euskara bera ongi ezagutuz gain, herri hizkuntza edo edozein eskualdetako euskara mintzatu neurri onean ezagutu behar da, eta hango euskaldunekin solasteko gai izan behar da. Euskara maila jasoan ezagutzeak hainbeste eskatzen du.

Bidenabar esan nahi nuke, diakronian mugituz gero, helburuak beste batzu izango lirakeela, eta materialek ere beste batzu beharko luketela izan, batik bat testu idatziak, eta azken batean baita ikasketak ere beste batzuk, eta beti eduki formal hutsei larregi lotzeko arriskutan.

Etxepareren olerki bat hartuko bagenu, Baxe-Nafarrera aztertu eta ezagutzeko bidea genuke, bai noski, baina XVI. mendeko Baxe-Nafarroako euskalkiaren sistema aztertuko genuke, eta irizpide zabalez jokatu arren, oso urruti geldituko litzaiguke egungo Baxe-nafarrera. Ez gaizki har esan dudan hau, ez bait da inondik ere esan nahi literaturan Etxepare ezagutu, eta irakurri eta aztertu behar ez denik; bai, ordea, helburua, metodologia eta gaia bera ere diferenteak direla; hitz batez, hemen dialektologiaz ari garela.

Gai honen helburua, hitz arruntetan esanda, edozein euskaldunekin mintzatzean ulertu ahal izatea baldin bada, edo eta edozein testu irakurriz ulertzea, egungo testu idatzietan eta egungo hizketetan oinarritu beharko ditugu ariketak, alde batera utziz XX. mende aurreko literatura gehiena eta horren inguruko iruzkin linguistiko-filologikoak.

DIALEKTOLOGIA: EDUKI ZERRENDA BAT

1. Sarrerakoa

- 1.1. Dialektologia eta Geografia Linguistikoa: azalpena.
- 1.2. Soziolinguistika eta Hizkuntzaren soziologia: azalpena.
- 1.3. Soziolinguistika eta Dialektologiaren erkaketa.

2. Euskal Dialektologia

- 2.1. Euskalkiei buruz egin diren sailkapenak eta horretarako erabili diren irizpideak.
- 2.2. Egin diren lanak eta erabilitako metodologia.

3. Eguno egoerarainoko euskalkien bilakabidea ikusteko diakronian gertatu den kanpo-historia

- 3.1. Geografia eta historia: argibide batzu.
- 3.2. Herriak (zentzu genetiko) eta harremanak.

4. Euskalkien egungo egoeraren ezagupen sinkronikoa

- 4.1. Lapurtera.
- 4.2. Baxe-Nafarrera.
- 4.3. Zuberera.
- 4.4. Goi-Nafarrera.
- 4.5. Bizkaiera.
- 4.6. Gipuzkera.

Edukiei buruzko oharrak

Lehenengo hiru gaiak teoriakoak dira. Helburuei soilik eta zuzenean begiratuta ez lirateke nahitaezko izango. Halaz ere, gaia kokatzeko, nondik nora doan jakiteko, gaia bera eta bidea zeintzu diren garbi ikusteko, eta, hitz gutxitan, formazioa osatu eta helburuak hobeki erdies- teko, gai horiek mesedegarri ezezik beharrezko ere badira.

Helburuen azalpenean agertu den bezala, euskalkiak lantzeko XX. mende osoa har daiteke erreferentetzat. XIX. mendeko zenbait testu idatzi ere ez dago zergatik baztertu beharrik, baina, bibliografian azaldu- ko denez, euskalkiren baten salbu, ez dugu uste joan den mendekoak beharrezko direnik.

Euskalkien kontzeptoz edo euskalkien mailan mugitzen gara, apropos baztertuz azpi-euskalki eta aldakien arazoa. Denok dakigun gauza da euskalkien barnean aldaketak badirela, baina horiek beren xehetasune- tan aztertzea helburuetatik at gelditzen da. Edo garbiago esanda, ezarri- tako helburuak betetzen badira, azpi-euskalkitakoekin ere mintzatzeko eragozpen larririk ez da izango, azpi-euskalkiek euskalkia bera izaten bait dute eredutzat. Zeharbidez, bada, helburua berdin betetzen da, eta azpi-euskalkitan sartzea, berriz, ziurrenez kaltegarri gertatuko litzateke.

Euskalkien azalpena ordena baten eman den arren, norberak jakingo du nondik hasi; dena den, tokian tokiko euskalkitik hasteari ez deritzogu oso oker ere.

Azkenik, euskalkien ezaugarriak jasotzeko ongi legoke hizkuntz mailei lotzea: fonetika, morfologia eta sintaksia -edo morfosintaksia- eta leksi- koa. Maila hauetan oinarrituz edo maila hauez baliatuz euskalkia bere ezaugarriekin ezagutu.

MATERIALAK

Bi motatako materialak eskaintzen dira: alde batetik, grabaketak; eta bestetik, testu idatziak. Azken hauek, bestalde, bi eratakoak dira: grabaketetako testuak idatzirik eta literaturatik zuzenean jaso daitezkeen irakurgaiak. Hemen egingo dugun azalpenak, beraz, bi zati izango ditu:

1. Grabaketak.

2. Testuak.

- a) Ortografia literala.
- b) Euskara batuan.


1. Grabaketak

Hizkuntzak irakurriz ulertu arren, gerta daiteke entzutez tutik ere ez ulertzea. Gauza bat da irakurketa menderatzea, eta hagitx besterik mintzaketaz eta entzutezko ulerketaz ongi jabetzea. Euskalkiak ere entzutez ulertu ahal izateko, noraezoko da irakurriz gain euskalkiok entzutea.

Mintzatu mailan, hizketan, ezaugarri prosodikoak oso garrantzi handia dute, eta entzutez baizik ez dago jasotzerik, beren ñabardura osotan behinik behin. Neurri handian euskalkien zailtasuna ezaugarri horietan datza. Euskalki ezberdinetako bi euskaldunen ulertezinak askotan ez dira arrazoi prosodikoagatik baino izaten. Belarriarena izan ohi da eragozpenik haundiena, eta hura gaindituz gero besteak erraz gainditzen dira.

Arrazoi horiek kontutan, grabaketak euskalkien ikasketa teorikoen hutsunea betetzera datoz. Sei euskalkiak oinarri bezala hartuz, bakoitzetik grabaketa bat behinik behin egin da, eta batzutan bi eta hiru ere.

Grabaketak sei-zazpi minututakoak dira, gutxi gora behera. 1.983ko uztaila-urria bitartean egindakoak. Mintzaleen adina berrogeitik hirurogei urtetarako da, eta gehienek berrogeitamar eginak dituzte. Kulturaren aldetik, berriz, Iparraldeko euskalkietan gehitxoago zaindu da alderdi hori, ikaslegoaren jatorria kontutan hartuta urrutiago gelditzeko arriskurik gerta daitekeelako.



• Egungo sei euskalkien gutxi gora beherako mugak eta grabaketak jaso direneko tokiak.

Zintan entzungo diren grabaketek didaktikoak izan behar dute, hau da, entzuleentzat egokiak, euskalkien ezaugarriez jabetzeko lagungarri gerta dakizkien. Zailegia baldin balitz, edo ahoskera itxiegiakoa, kontra-kzio askakoa, hizketa biziagikoa..., ikasleei zailegi gertatuko litzaieke grabaketa horrekin lanean aritzea. Edozein hizketak, hizketa herrikoiak esan nahi da, berez izaten ditu nahiko zailtasun. Horregatik zubereraren kasuan lekuko fidagarria bilatu da, euskalkia ongi ezagutu ezezik baita ongi esan ere egiten duena; baxe-nafarrerarako, berriz, bi lekuko: bata landuagoa eta ulerterrazagoa, eta bestea herrikoiago eta zailtxoagoa.

Lapurteratik eta goi-nafarreratik bakoitzetik bat, zailtasun berezirik ere ez dute eta, eta gainera ezaugarriak ere aski garbi azaltzen dituzte.

Gipuzkerakoak ere bi egin dira. Bien artean aldaketa garrantzizkorik ageri ez bada ere, batetik bestera alderik bada, eta Azpeitiko euskarak bizkaierarako bidea apurtxo bat ematen du.

Bizkaieraz hiru grabaketa. Geografiaren aldetik hain urruti gelditzen ez badira ere, aldaketen aldetik badute berezitasunik. Bestalde, bizkaiera, xubererarekin batera, aski urruti geratzen da euskara batutik. Bizkaieraz egiten duten mintzaleen kopurua ere dela eta, hiru grabaketa emateari ongi generitzen.

Euskalki bakoitzeko lekukoaren herriak hauek dira:

LAPURTERA: Sara

BAXE-NAFARRERA: Baigorri
Heleta

ZUBERERA: (1)

GOI-NAFARRERA: Ituren

BIZKAIERA: Lezama
Goroziak
Mundaka

GIPUZKERA: Astigarraga
Azpeitia

Sei minututako testuak aski luzeak gertatzen dira aztertu nahi izaten direnean eta norberaren euskalkiaz eta euskara batuaz erkatu nahi direnean. Azterketak eta erkaketak egiteko zati laburrez baliatzea hobe dela uste dugu, eta ez grabaketa osoaz. Bospasei lerroko zatiari probetxu haundiagoa ateratzen zaio zati luzeei baino.

(1) Lekukoa Santa-Grazikoa izan arren ez da toki izenik eman nahi, lekuko ikasia delako eta egiten duen xuberera oso eredu-garri eta zaindua delako.

Dena den, lan honen helburutik saihestu ez gaitzen. Grabaketak entzun egin behar dira, zer dioen ulertu arte entzun; lehenbizi belarria egin egin behar da, eta gero norbera eta norberaren adimena ere bortxatu apur bat, belarriz ongi aditzen saiatuz. Honen ondoren pasa daiteke testu idatzietara, norberaren interpretatze edo ulertze lana nola egin den ikusteko eta beste edozein azterketa lanetarako. Baina beti entzun eta ulertzen saiatu ondoren, ez aurretik.

2. Testuak

a) *Transkribaketa literala.*

Grabaketari testu idatziak laguntzen dio, hau da, lekukoak esaten duena hark esan bezala ematen da idatziz. Transkribaketa hau, nolabait deitu behar eta, «transkribaketa literala» izendatu dut. Jakin badakit «literal» hitza ez dela berez oso egokia, letra gogoratzen bait du, baina erabili izan da hitzez hitz eta hotsez hots ematen dena adierazteko. Hemen ere horrelako zerbait esan nahi du: ahal den neurrian ahoskerari loturiko ortografia edo transkribaketa, transkribaketa fonetikoa izan gabe.

Kontutan hartu behar da transkribaketa literal hau euskal alfabetoko letrez baliatuz egin dela, eta, azken batean, letra horiek aditzera ematen duten baloreez baliatuz. Esate baterako, lekukoren batek gaztelaniako [θ], horzarteko frikari ahoskabea, ahoskatzen badu, hemen euskal alfabetoko «z» letraz transkribatuko da, uste bait dugu hori dela gehien hurbiltzen zaion euskal alfabetoko letra.

Transkribaketa fonetikoa apropos utzi da alde batera, eta honela jokatzeko arrazoi hau izan dut: transkribaketa fonetikoak alderdi formalegietara lotzen du. Fonemen errealizazio fonetikoak ugariak izaten dira mintzale batetik bestera eta mintzale beraren baitan ere: honek kasuistika xehegia sortu ohi du eta, agian, lanaren helburuetatik desbideratuko gintuzke. Transkribaketa fonetikoa, bestalde, lagungarri ez baina kaltegarri gertatuko litzatekeela uste dut.

Transkribaketa literalak, berriz, betetzen du hemen bilatzen dena: ikasleari laguntza eskaini, zintan entzuten dena ulertzen lagundu, eta azterketa lanetarako gaia eman.

Halaz ere, transkribaketa literalak baditu bere oztopoak, zenbait kasutan transkribaketa fonetikoaz errazago gaindi daitezkeenak, eta hementxe azalduko ditut banaka batzu.

Ortografiako zeinu hutsez baliatu behar denez, zentzu zabalez jokatzea ezinbesteko da, eta hala ere ez da beti erraz jakiten batera edo bestera idatzi behar den. Eman dezagun bokalismoan maiz gertatzen den kasua, hiatoetako «armonizazio bokalikoarena»: hauetan ez da beti garbi agertzen norainokoa den itxidura, eta ez da jakiten nola idatzi, «bidea» ala «bidia», «usoa» ala «usua». Honelako kasutan, itxitasunaren alde makurtzen bagara, bokalik itxienaz emango da, «i» edo «u»z alegia;

baina zalantza gogorregia bada, orduan forma normalizatuan utziko da, hau da, «e» eta «o»rekin.

Bokala luze ahoskatzen denean ere ez da jakiten beti bokalaren iraupen hori noiz geminazioz azaldu eta noiz batekin utzi. Kasuz kasu erabaki behar izan da, eta ez gainera norbera ere beti konforme geldituz.

Erlajatueta ere gauza bera edo beretsua, eta kontsonanteentzat ere berdin balio duena. Erlajatuak batzutan galdu egiten dira, baina beste batzutan gutxi bada ere entzun egiten dira. Entzuten diren bitartean idatzi egin ditugu, eta ez guztiz galdurik daudenean.

«Yod» edo «*j» delako hots zaharraren bilakabidea oso ezberdina da euskalkitik euskalkira, eta horregatik kasu askotan bereizgarri nabaria zein euskalki den jakiteko. Hots hau letra batez bakarrik ematea ez zen egoki; zenbait letra erabili ditut, eta ez beti zentzu bakarrean gainera.

«j» letraz belare frikari ahoskabea adierazten da, gipuzkerako testuetan «joan», «jo» eta horrelakoetan ahoskatzen dena. Bizkaieraz ere, Gorozikakoek eta Mundakakoek, erabiltzen dute, Mundakan alternantziatziaz bada ere. Azken honetan sabaikari afrikari, inoiz frikari, ere egiten da, eta kasu honetan bi letrez, «dx», eman dugu: «dxagoten».

Hegoaldeko euskalkietan mailebuzko hitzetan ere beti belare frikari ahoskabea ebakitzen da: «jornala».

«y» grafemak hots bat baino gehiago adierazten du, frikari-afrikari arteko graduazioz bereizten diren hotsak. Goi-Nafarrerako edo lapurterako «yokatzen» eta baxe-nafarrerako «yendek» ez dira behar bada berdinak, baina biak letra berarekin idazten ditugu. Hori bai, letra horrek ez du afrikaziorik azaltzen. Afrikatuak beste era batzutara azaltzen dira.

Hitz barruan eta fonetika sintaktikoa dela bitarteko hotsen aldaketak sortzen dira eta bai hotsen epentesiak ere: Lezamako «ill yakun», Azpeitiko «jayaldiyek». Beherunzko diptongoetan gertatzen den errealtzazio kontsonantikoa ere «y» grafemaz transkribatzen da: «jayaldiyek» Azpeitiko testuan.

«x» grafemak ere hots ezberdinak adierazten ditu. Zubererako testuan sabai aurreko frikari ahostuna «xakin», «xin» eta horrelakoetan. Eta hots berdintsua fonetika sintaktikoa dela bide, bizkaierako Gorozikako testuan: «jaixek», «baskaixe», hau da, armonizazio bokalikoa delako horietan, eta baita ere adizkietako zenbait formatan: «gustan xakien». Mundakakoan ere ageri da: «andixe». Baina euskalki guztietan ageri da sabai aurreko frikari ahoskabe bezala, eta idatziz letra beraz idazten dugu: «exker», «errex» (BN), «gixon» (B) e. a.

Beste arazo bat hitzen loturak dira, kate mintzatuan gertatzen diren hitzen arteko loturak. Horrelako loturak ez ditut errespetatu, batez ere argitasunaren mesedetan. Azpeitiko [umeguštijek] edo Gorozikako [xua-tengin'češan] bi hitzetan banaturik idatzirik agertuko dira. Gehien ere askatu ezinezko lotura gertatu denean bi hitzen azpitik marra batez lotu ditut: «ta_uama» (Mundaka).

Idatzian ez da bereizten Iparraldeko dardarkarien ahoskera berezia ezta inongo azenturik ere. Grabaketak hor daude, eta bertatik jaso beharko dira fonetika arazo hauek eta besteren batzu ere.

b) *Euskara batuan*

Transkribaketa edo ortografia literalez idatzi diren testuak gero euskara batura pasatu dira. Hobeto esan, euskara batura pasatzen saiatu egin naiz, ez bait da erraza lan hori, batez ere beti iritzi bati eutsiz.

Baturik dagoena nahiko zehatza da nahiz ortografia mailan nahiz morfologian. Baina honetaz aparte badago normalizapen bat edo idazleengan, euskara batuaren irudia dena baino zabalagoa agertzen duena. Ahal izan dudan heinean, euskara baturako Euskaltzaindiak emandako arauetara lotu naiz, eta beste guztian euskalkietako erabilerak errespetatzen saiatu naiz. Hala nola, Iparraldeko «jin» utzi da «etorri» erabilia goa izan arren, edo bizkaierako «alkar», «baltza» edo «atara», leksiko mailan ez bait dago erabakirik hartuta.

Kasu zailagorik ere bada, esaterako Azpeitin jasotako «ertetze u» eta «ertetze ute». Horrelakoetan errespetatu egin da euskalkiko erabilera: «ertetzen du» eta «ertetzen dute», eta ez da ipini «urtetzen da» edo «ertetzen dira», ez eta «irtetzen» ere.

Kontrakzioak eta fonetika sintaktikoan gertatzen diren aldaketak edo oharkabezkoak zuzendu egin dira, beti euskalki bakoitzean eta euskaran bertan normalizat eta onartutzat hartzen denaren arauera. Esaterako «guañ» (GN), «oiñ» (B), beti «orain» idatzi dira. Iparraldeko «orai» errespetatuz, ordea.

Badira beste mila gauza hemen azaldu ezin daitezkeenak, eta ez gutxi eztabaidagarriak ere, baina testu biak aurrean edukiz, denak nahiko garbi agertzen dira.

Ohar zenbait

Azkenik eta bukatzeko, beste zerbait ere esan nahi nuke. Hizkuntza mintzatua izateak garrantzi handia du. Gauza bat dira ezaugarri dialektalak eta beste bat hizkuntza mintzatuak izan ohi dituenak.

Idatzi egiten denean, pentsamendua esaldi borobil eta egoki osotuetan azaltzen da, horretarako astia ere hartzen da eta. Hizkuntza mintzatu, berriz, eta elkarrizketa bizian areago, hizketa pentsamenduari eta norberaren adierazkortasunari lotua ibiltzen da. Pentsamendua oso geldikorra izan ohi da: atzera-aurrera eta joan-etorri ugari ibiltzen du, gramatikaren axola larregirik gabe, komunikazioaren haria hausteko edo galtzeko arriskurik ez den bitartean. Horrela gertatzen dira hizkuntza mintzatuaren errepikaketak, zalantzak, esaldi goratzaile asko, galdera eragileak, komunztaduraren etenak, esaldi laburtuak eta beste mila.

Testu hauetan ere horrelakoak ageri dira. «Nik estoas esetu iños orrenbeste euri iten» (B-Lezama). Lekuko honek euriaren ugaria azaltzeko edo aditza pluralean ipintzen du, baina gero «egiten» sartzen du, beharbada euria nola egiten zuenaren irudi biziaren eraginez, eta komunztadura eteten da, «anakolutoa» sortuz.

Horrelako kasu guztietan testu jatorra errespetatu da, eta agian hutsegitez har daitezkeen horiek ukitu gabe pasatu dira baita batura ere. Dena den, eta neure burua zuritzeko, ez da beti gauza garbia zein zeineko den bereiztea, hau da, dialektal huts ala espresibitateari dago-kiona den jakitea. Nire jokabidea ere ezin izan da beti zehatz eta finkoa, baina entzule-irakurlearen zentzu sotilak jakingo du nahita utziak arrazoi-tzen eta deskuidoaz ihesiak zuzentzen.

Beste arazo bat ere bada nahiko gogaikarria: puntuaketarena. Transkribaketa ahozko testua errespetatuz egin behar da, ez ahozkoa norbera-ren gisara interpretatuz. Baina puntuaketaren laguntzaz irakurtzen hain ohituak gaudenez, ezin izango nituen, bada, aldrebeskeriak eta bere hala utzi, bestela testu idatzia nahasiegia eta irakurleon ohitura egingen aurka gelditu zatekeen. Beraz, zeinu batzu ipintzen aritu naiz, baina ez ohitura idatziak eskatuko lituzkeen guztiak, ez eta gutxiagorik ere; eta horietan ere, ahal zen neurrian, benetan egin diren etenaldiei lotuz.

LAPURTERA - Sara

Orai, uda hau eta bururatuko delarik eta, kanpotiar guziak, arrotzok hemendik joanen dira eta geldituko gara saratarrak elkarrekin. Orduan, nola denbora pasa, ba ahalik eta hobekiena, bistan da.

Gizonak izaten du, Jainkoari esker ihizirat joateko manera. Usoa pasatzen da leku hauetan eta hortxe goizean goizik aroa ona baldin bada abiatzen gara mendirat.

Halaxetat elkarretatzen (elkartzen) gara eta lekurik hoberenetan han jartzen gara bakoitzak hartuz gure bideak eta egoten gara usoa noiz agertuko den. Hor, bistan da, zein izaten den eta hobekiena emana, hark izaten du tirokatzeko manerarik hoberena. Orduan, izaten dira noizean behinka mokoka aldi batzu; zenbaitek tiratu dute usoa eta bertze bat joaten da biltzera eta hantxe aritzen dira piska bat eta hitz haundiskoak eta elkarri erraten dituzte. Baina, hala ere, denak ongi pasatzen dira (dute) eta iluntxea delarik zeinek dituen uso gehienak eta hark ostaturat jautsi eta urrupa bat pagatzen du lagunei eta horrela denak kontent etortzen dira.

Batzuetan, izaten da aro ona. Haizegoak (haize-hegoak) ematen duelarik usoa pasatzen da apal. Loria (gloria) izaten da, zeren eta, dakienak ongi tiroka hark hiltzen du usoa polliki. Bertzeak, bistan da, jelsia (enbidia) piska batekin egoten da, baina ez du inporta, hain da eta, begitartea eta mendia ederra non badakizu ihizirik hiltzen ez baldin bada ere plazer haundia da ikustea mendi gaineratik, eta zelaiak urrunerat (urrutira), ikusten duzu itxasoa eta, hegoak irudi du Larrungo eta mendia horbelean hatzaparrez atxematerako duzula; hain da eta garbi eta mendiko airea.

Gerla finitu (amaitu, akitu) zelarik, Alemaniatik etorri ginen han preso egonik, elkarretatu (elkartu) ginen lagun andana (talde) bat. Eta, denek alaena! lagun onak ginen, elkarren baitan bait genuen konfientza eta nahi izan genuen piska bat jostatu ihizia maite genuelakotz denek.

LAPURTERA - Sara

Orai, uda au eta bururatuko dalaik eta, kanpotiar guziaik, arrotzoik emendik ganen die eta geldituko gea saratarrek elkarrekin. Orduan, nola denbora pasa, ba alik eta obekiena, bistan da.

Gizonek izaten du, Yikoari esker iizirat gateko manera. Usua pasatzen da leku autan eta hortxe goizean goizik arua ona balin bada abiatzen gea mendirat.

Alaxetat elkarretatzen gea eta lekuik obeenetan an yarritzen gea bakotxak artuz gure bidiak eta egoten gea usoa noiz agertuko den. Hor, bistan da, zein izaten den eta hobekiena emana, arek izaten du tirokatze-ko maneraik obeeena. Orduan, izaten die noizean beinka mokoka aldi batzu; zenbeitetik tiratu dute usua eta bertze bat gaten da biltzeat eta antxe aitzen die pixkat eta itz aundixkoak eta alkarri erraten tuzte. Baina, ale, denak ungi pasatzen die eta iluntxea dudelaik zoinetik dituen uso geienak eta arek ostaturat yautsita urrupat paatzen du lagunei eta ola denak kontent etortzen dire.

Batzuetan, izaten da aro ona. Aizeguak ematen duelaik usua pasatzen da apal. Loria izaten da, zeen eta, dakienak ungi tiroka arek iltzen du usua polliki. Bertziak, bistan da, yelosia pixkatekin egoten da, baina ez du inporta, hain da eta, begitartia eta mendia ederra non badakizu iziik hiltzen ezpaldin bada ere plazer aundia da ikustia mendi gaintetik, eta zelaiak urrunerat, ikusten uzu itxasua eta, eguak irudi du Larrungo eta mendia horbelian atzaparrez atxematerako duzula; hain da eta garbi eta mendiko airia.

Gerla finitu zelaik e, Alemaniatik etorri ginen an preso egonik, elkarretatu ginen lagun andana bat. Eta, denek alaina lagun onak ginen elkarren baitan baignuen konfienzia ta nai izatu genuen pixkat yostatu iizia maite ginulakoz denak.

Orduan, bagenituen eta, hemen, ihiztari batzu onak eta bagenuen guziz gaineratik oihan-zain zahar bat xuberotarra. Hura hemen egon zen eta erran zigun:

— Bai mutilak hementxe eta oihan eta larruz mazela hauek erbiz bete dituk zuek han zintaten denboran eta nik erakutsiko dizkizuet leku batzu non segur altxatuko (jaso, aurkitu) duzuen erbiak. Gero, hiltzea hori zuek zuen gain izanen duk.

Joan ginen bertze egun batez eta, bizpahiru lau bortz lagun zakur onak baratzen (hazten, gertatzen) zituzten. Eta suerte haundia izan (izandu) genuen, hil genituen bortz erbi eder. Arratsean, etorri ginelarik ostaturat egon ginen hantxe eta oihan.zain zaharra etorri zen:

— Ka mutikoak! Nik erran lekuan ibili zaiztek?

— Ba, ba, Frantxoa, hor ibili gara eta begira ezazu zer hil dugun.

Mahai gainean hantxe emanak genituen luxe-luxeak eta bortz erbi, politik. Eta etorri zen:

— Ha, hau duk hau, mutikoak! hau duk eta ihizi ederra. Lehenago ibiltzen ginelarik gu, hiltzen genituen, baina, lau batean holaxe hiltzea istan batez ez duk maiz izaten. Eta, o, gaisoak, zein politik diren erbi hauek!

Egon zen haiekin ferekaka (balakatzen, ukitzen) eta erran zigun memento batez:

— Ba, mutikoak! Zuek, behar bada, ez dakizue zerbait.

Eta, ba:

— Ze errango duzu Frantxoa?

— Begira itzazue ongi eta erbi hauek. Hauetan, badituzue hiru arrak direnak. Eta, begira itzazue ongi: beren ontasunik ez ditek gehiago.

— Aa, zen edo ahala? («Izan al daiteke hori?» edo horrelako zerbait esan nahi du).

Hantxe ez zuten beren ontasunik arrak izanagatik.

— Ez dakizuela hau zer izaten den?

— Ez, ez dout (sic) (dakigu).

— Bueno, nik errainen dizuet. Non izaten diren lapinak (konejuak) eta haiek elkarretatzen (elkartzen) dira lapinak, lapinak eta enseiatzen (ahalegintzen) dira kasatzera (deuseztatzen, garbitzen) erbiak. Eta, jokatzeko dira erbiei lapin andana bat eta behar den lekutik lotzen zaizkie, mozten dizkie koskoilak, barkatu, eta hola, pittaka-pittaka erbiak ezeztatzen dira leku honetan.

Horixe, hori egundaino ez genuen aditua (entzuna) eta zahar baten-gandik solas (hitz, berba) horiek onartu genituen, zeren eta esperientzia haundia bazuen. Eta zen gizon zintzoa. Hara, nola ikasten diren asko gauza.

Orduan, bagintuen eta, emen, iztari batzu onak eta baginuen guziz gainerik oian-zain zaar bat xuberotarra. Ura emen egon zen eta erran zukun:

— Bai motillak ementxe eta oian eta larruz mazela auk erbiz bete dituk zuek han zinezten denboran eta nik eakutsiko izkizuet leku batzu non e segur altxatuko duzuen erbiak. Gero, hiltzia oi zuek zuen gain izain duk.

Gakinen berze egun batez ta, bizpairu lau borz laun zakur onak baatzen zituzten. Eta suerte aundia izatu ginuen, il gintuen borz erbi eder. Aatsian, etorri ginelaik ostarurak egon ginen antxe eta oian-zain zaarra etorri zen:

— Ka mutikoak! Nik erran lekuan ibili zaiztek?

— Ba, ba, Frantxoa, or ibili gea eta bea zazu ze il doun.

Maainan gainean antxe emanak gintuen luxe-luxeak eta borz erbi, politak. Eta etorri zen:

— Ha, au duk hau, motikoak!, au duk eta iizi ederra. Leenu ibiltzen ginelaik gu, iltzen gintian, baina, lau batian olaixe iltzia iztanpatez ez tuk maiz izaten. Eta, o gaxuak, zein politak diren erbi auk!

Egon zen eiki ferekaka eta erran zukun memento batez:

— Ba, mutikoak! Zuek, bear ba, ez dakizue zerbeit.

Eta, ba:

— Ze errango uzu Frantxoa?

— Beiatzazue ungi eta erbi auk. Autan baituzue hui arrak dienak. Eta, beiratzazue ungi: beren ontasunik ez ditek geio.

— Aa, zen do aala?

Antxeetzuten beren untasunik arrak izanagaitik.

— Ez dakizuela hau ze izaten den?

— Ez, ez dout (sic).

— Bueno, nik errainen itzuet. Non izaten dien lapinak eta hek elkarretatzen die lapinek, lapinak, eta enseiatzen die kasatzea erbiak. Eta, yokatzen die erbiei lapin andana bat eta bear den lekutik lotzen zaizkote, mozten diozkate koskollak, barkatu, eta ola, pittaka-pittaka erbiak ezeztatzen die leku ontan.

Oixe, oi egundaño ez ginun aitua eta dzaar batenganik solas oik onartu ginuen, zeen ta esperienzia aundia bazuen. Eta zen gizon zintzoa. Ara, nola ikasten dien asko gauza.

ZUBERERA

Bai, nahi duzue orduan, jakin amiñi bat (apurtxo bat) nola eleztatzen (mintzatzen, hitz egiten) diren Zuberoan. Zuberoan mintzaira berezi bat dugu eta, orduan, erranen dizuet amiñi bat, beha (ikus, begiratu) dezaten untsa nola guk erraten dugun Zuberotarrez, zer, hitz zunbait erranen dizuet.

Ni sortzez Santa-Graziko naiz eta hona Larrañerat jin baino lehen irakasle izan naiz leku anitzetan eta bereziki Donapaleun.

Donapaleun egon naiz hamazazpi urtez eskola buruzagi bezala eta aski uste nuenean emanik nuela eskolari, behar nuela zerbait egin Zuberoarat (-ri) buruz galde (eskatu) egin dut Zuberoako bazter txoko batetara joatea eta orduan hemen Larrañen ezarri naute. Eta horrela pentsatzen dut Zuberoarat (-ri) buruz lan gehiago egiten ahal dudala. Zuberoa maite bait dut, eta bigarrenik, Zuberoko jakitateari buruz anitz emanik naiz. Orduan, orai artio izkibatu baldin badut pastoral zunbait, emanik izan bait dira, e, pastoralak ahalik ere (?) beti aitzinera izkibatzen ari naiz eta lehen lehenik pastoral zunbait aboroxe (apur bat gehiago) izkibatu dut, horiek ere berantxago agertuko dira, eta ber denboran ere, beste gauza zenbait izkibatu dut, ipuin zunbait bezala, eta lan handi bat elizako egun horretako irakurgaiak Zuberotarrez itzuli. Eta hor badugu, badut nunbait kaie (koaderno) bi mila paie (orrialde) eskuz idatzirik eta orai, ari naiz mekanikaiki jotzen (makinaz idazten).

Zer, orduan, egiten dut hemen? Larrañeko zerbitzurako naiz, apez bezala, eta hemen plantatu bezain sarri (agudo, laister) jakinarazi didate behar dudala bestetarat joan. Eta, orduan, Altzaiko erretora hil bait da, behar dut, orduan, Altzaira joan erretor bezala eta ez dute hemen Larrañik apezik ukanen apeztegian, ni hemen bizi naizen bezala: Ligiko eta beste zunbaitek eginen dute hemengo zerbitzua, zeren apurtzen (gutxitzen, urritzen) ari gara apezak hemen gainti Euskalerrian beste anitzetan bezala, eta hartarako behar da ahal den bezala egin eta ni, orduan, joanen naiz Altzairat, hemen utzirik larraintarrak, eta larraintarrak franko maite nituen eta algarrekin, uste dut, untsa ginela orai artio.

ZUBERERA

Bai, nahi düzie ordian, xakin amiñibat nula elheztatzen dien Xüberuan. Xüberuan minzaxe berhezi bat dügü eta, ordian, erranen deiziet amiñibat, beha zitaien untsa nula gük erraiten dügün Xüberotarrez, zer, hitz zumait erranen deiziet.

Ni sortzez Santa Graziko niz eta hunat Larrañat xin beno lehen eakasle izan niz lekhü hanitxetan eta berheziki Donapaleun.

Donapaleun egon niz hamazazpi urthez eskola büzagi bezala eta aski uste denian emanik niala eskolai, behar niala zerbait egin Xüberualat büz galtegin düt Xüberuko bazter txoko bateta xueitia eta ordian heben Larrañen ezai naye. Eta holaz pentsatzen düt Xüberualat büz lan gehiago egiten ahal düdala, Xüberua maite beitüt, eta bigarrenik, Xüberuko xakitatiai büz hanitx emanik beniz. Ordian, oaiartio izkibatü balin badüt pastoal zumait, emanik izain beitia, e, pastoalak ahaleike beti aitzina izkibatzen ai niz eta lehen lehenik pastoal zumait aboxe izkibatü düt, hoik e beantxago agertüko dia, eta ber denboan ee, beste gaiza zumait izkibatü düt, ipuñ zumait bezala, eta lan handi bat elizako egün hortako iakurgeiak Xüberotarrez itzüli. Eta hor badügü, badüt nunbait kaye bi mila paxe esküz idatziik eta oai ai niz mekanikaiki xoitzen.

Zer, ordian, egiten düt heben? Larrañeko zerbütüko niz, aphez bezala, eta heben plantatü bezain sarri xakinazi deitayet behar düdala bestetat xuan. Eta, ordian, Alzaiko erretoa hil beita, behar düt, ordian, Alzaiat xuan erretor bezala eta ezkie heben Larrañik aphezik ükhenen apheztegien, ni hebe bizi nizan bezala: Ligiko eta beste zumaitek eginen die hebengo zerbütüxia, zeen, aphürtzen ai gia aphezak hebengainti Euskalerrian beste anitxetan bezala, eta hartakoz behar da alden bezala egin eta ni, ordian, xunen niz Alzaiat, heben ützik larraintarrak, eta larraintarrak franko maite nütian eta algarreki, uste düt, untsa ginela oaiartio.

Laminak baziren aitzinetik Joako basoetan.

Lau lamina

Jiten ziren Jaundone Joane goizean begitartatzera (arpegia garbitzera) Sahatseko errekarara. Hemen, Larrañen, Orhiko harpera joaten ziren bezala eta egun hartan neskatilak eta emazteak ere beren iturrira xahatzera, garbitzera, joaten ziren. Eta omen erran didate etxe batetan bazela gizon bat horrelaxe etorririk Jaundone Joane goizean jeikitzen zela eta borta (ate) aitzinean pikarrai (bilutsik) jarrita, bere askan bainatzen zela, hori goizik (goizean), laminak bainatzen ziren ber tenorean (garai edo ordu berean).

Urte batez, orduan, ari ziren apaintzen urean. Barrantol zaharra gertatu zen, han argitzeko (argitze orduan) aharka joaten. Aharkak dira ahariak, aharien txerka (bila) joaten eta hiru lamina han xahatzen ari.

Erraten die (sic), orduan, lau ogi gomendatzen die (sic). Eta, bai, bai, ekarriko ziela bai lau ogi. Eramateko laminen bortara. Hori biharamoneko komisionea.

Barrantol etxera jiten da eta emazteari erraten dio:

— Laminak bat (aurkitu, kausitu...) dizkinat eta ogiak gomendatu diztaine (zizkidanate, zizkidatene) eta behar dinat ogiak eraman, bestelan trunpatuko (engainatuko, burlatuko) nine (niaunate, natxiotene) edo zerbait eginen ditaine (zidanate, zidatene).

— Ai, ai, ai, aia! Eta ikusi dituk laminak? Non? Ho eta hola? (Honela eta honela?)

— Hola, bai.

Barrantol ogika (ogitara) joaten da, bai, eta lau ogi hartzen ditu, lau txoina, hots lau txoinak dira ogi luze-handiak, lodiak. Orduan, badoa bere txoinekin. Bidean agitzen (gertatzen, gogotzen) zaio baten hastea, txoina baten, gose bait zen, puska bat jan zuen berak. Laminen egondegira (egonleku) hel eta, han joaten da leze bortara, joaten da leze bortara eta txingili (lamina?) bat egertzen zaio txinkaz (irrintzika). Hori ematen dio, bai, osoa, lehenik eta hau sartzen da. Beste bat jiten da, hari berriz ematen dio. Gero, hirugarrena, hirugarren bat elkitzen (ateratzen) zaio, hari berriz, bestea, osoa. Eta horra, laugarrena. Hari ematen dio delako zokorra mozturik zuen hura. Laminak, orduan, erraten, erran zion:

— Aa, Barrantol, Barrantol, ukanen duk eskalanpua desgantzol (1) eta emaztea bihotz hotz.

Horixe zen gure istoria.

(1) Hitz jokoa da, baina dena den, «eskalanpu» beste batzuren «eskalapoin» da, zurezko oinetakoak; eta «gantzol» oinetako horiei gainera ipintzen zitzaien larrua, beraz, «desgantzol» larrurik gabe edo izango da.

Laminak bazütuzün aitzinetik Xoako baxetan.

Lau lamina

Xiten zütüzün Xundane Xuhane goizan begithartatzea sahatseko errekaala. Heben, Larrañen, Orhiko harpiala xuaiten zien bezala eta egün hartan neskatilak eta emaztiak e been iturriala xahatzea, garbitzea, xuiten zütüzün. Eta, omen erran ditazüet etxe batetan bazela gizun bat holaxe etoik Xundane Xuhane goizan xeikitzen zela eta bortha-aitzinian pikarrai xarreta, bee askan bainatzen zela, hoi goizik, laminak bainatzen zin ber tenoian.

Urthe bathez, ordian, ai zütüzün aphaintzen huiean. Barrantol zaharra agitü züzün, han argitzeko aharka xuaiten. Aharkak dütüzü ahaiak, ahaien txerka xuiten eta hiu lamina han xahatzen ai.

Erraiten diezü (sic) (1) ordian, lau ogi gomendatzen diezü (sic) (2). Eta, bai, bai, ekarriko zeiala bai lau ogi. Eamaiteko laminen borthaala. Hoi bihamüneko komisionia.

Baantol etxea xiten düzü eta emaztiai erraiten diozü:

— Laminak bath diñatzat eta ogiak gomendatü diztañe eta behar diñat ogiak eaman, bestelan trunpatüko niñe edo zerbait eginen ditañe.

— Ai, ai, ai, aia! Eta ikhusi ditük laminak? Nun? Ho eta hola?

— Hola, bai.

Baantol ogika xuaiten düzü, bai, eta lau ogi hartzen dütü, lau txoina, hots, lau txoinak dia ogi lüze-handiak, lodiak. Ordian, badoazü bee txoineki. Bidian agitzen ziozü baten hastia, txoina baten, gose beitzen, puska bat xan züzün beak. Laminen egondigiala hel eta, han xuaiten düzü leze borthaa, xuaiten düzü leze borthaa eta txingili bat agertzen ziozü txinkaz. Hoi emaiten diozü, bai, osua, lehenik eta hau sartzen düzü. Beste bat xiten ziozü, hai berriz emaiten diozü. Geo, hiugerrena, hiungerren bat elkhitzen ziozü, hai, berriz, bestia, osua. Eta, horra, laugerrena. Hai emaiten diozü delako zokorra muztuik zian hua. Laminak, ordian, erraiten, erran ziozün:

— Aa, Barrantol, Barrantol, ükhenen dük eskalanpua desgantzol eta emaztia bihotz hotz.

Hoixe zen gue istoia.

(1) Ez ote luke behar «diozie» («diote» zuka)? Louis Gèze-ren Gramatikatik hartua, 98-99 or.

(2) Hemen ere «diozie» nahiz «ditzoie»? Ibidem, 98-99 or.

GOI-NAFARRERA - Ituren

Bai, hau Ituren-a da. Aspaldiko Ituren omen da, ta hemen lehen ere lan egin eta bizitzen ginen, ardiak, behiak eta behorak, udan mendira, eta hortxe, artoak ereiten genituen; behiak lotzen genituen goizean goiz eta, hortxe, alorrean (landan, soroan) karrakilaka (jo eta ke lan asko egiten) aritzen ginen lanean. Orain, etorri dira traktoreak, horiekin, gutti lanean jendea, belarra erein da eta kanpo guziak ja (erd. 'ya') mailarra (indi baba, babarrun) ta artoa gutti.

Gero, jendea orduan joaten zen batzuk Ameriketara bertzeak Iratira, hementxe, jai eguna etortzen zen eta bertan. Soinularia ta dantzan ta ardo pixka bat edaten genuen, hementxe ibiltzen ginen armonian.

Gaur, berrizen, kotxeak hartu eta hor doaz, hortxe beheiti, martxan. Eta, hemen, ez da orain. Aldi batean bertan egoten ginen denak, baina orain herrian gutti dago, gaztea lekutzen da. Orain, hortxe.

Gero, egiten zen mailarrak eta artoak eta aunitz orduan oraingo aldetik, orain gutti. Orain, aziendak bota kanpuetara, lehenago ez zen holako modarik, orain kanbiatzen ari da hau.

Iratzeak (garoak, irak egiten genituen igitaiarekin ebaki, orain ez igitaiarekin ta ez segarekin ia batere ez. Ari da kanbiatzen gauetikan egunera bezala, ez dakit martxa honetan zer etorriko den, labrantza lanean ere jendeak gutti aritzeko erraina du (gogoa du), fabrikak egin dira eta orain gelditzen ari dira; ez dakit zer pasa behar dugun hemen.

Hemen, bestak ere egiten ziren lehenago ederrak hiru auzoetan. San Martin bezperan ardizaharra edo zikiro hiltzen zen eta jendeak, hementxe, kozinerak etortzen ziren, prestatzen zituzten lurreko sutan mantenuak, denbora batean eta jaten zen orduan ere ederki: paziko zopak, gero zuritabeltza, gero gisadu ederra ere bai, eta gero etxean egindako oilaskoak ere bai, ez zen konpuestorik orduan orain bezela. Eta, hementxe pasatzen ziren bestak, ongi. Kordionista bat etortzen zen, eta gazteak harekin lehertzen ziren. Orain, berrizen, musika gogorak baditugu ta batzuk ibiltzen dira dantzan eta bertzeak ez dakit, hor ibiltzen dira, ez da lehen bezala armoniarik elkarrekin kuadrilan, ez dakit hor, arratseko zortzietan aterako dira musikak, geldituko dira hamar t'erdietan, afalduko dute, gero aterako dira hamabitan eta gero goizeko hiru lauetan iraulka hor, holaxe pasatzen dira orain.

Lehenago, enkanbio, ilunabarrean hamarrak hamaikak aldean erretiratu, afaldu eta, martxa, tragu batzu egin ostatuan eta etxera. Orain, berrizen, ateratzen dira lehen sarrerako, ateratzeko denbora orain kanpora.

Eta, jan ere egiten zen, parienteak eta denak etortzen ziren. Gu ailegatu gara hemen hemezortzi hogeia lagun. Kozinera ekartzen zuen ama zenak eta aitak eta jaten genuen ederki.

GOI-NAFARRERA - Ituren

Bai, au Ittuna da. Aspaldiko Ittun omen da, ta emen len ere lan in ta bizitzen giñen, ardiak, beiak ta biorrak, udan mendira, ta ortxe, artuak ereiten gittun; beiak lotutzen ginttun goizin goiz ta, ortxe, alorin karrakillaka aitzen giñen lanin. Uañ, tor dee traktorik, orikin, gutti lanin jendia, belarra erein da ta kanpo guzik ya mallarra ta artoa gutti.

Gero, yendia ordun yuaten zen batzuk Ameriketara bertzik Iratira, ementxe, yai eguna tortzen zen ta bertan. Soñularia ta dantzan ta ardo pixkot edaten giñun, ementxe ibiltzen giñen armonin.

Gaur, berrizen, kotxiak artu ta or doazi, ortxe betti, martxan. Ta, emen, ezta guañ. Aldi batin bertan egoten giñen denak, biño guañ errin gutti dago, gaztia lekutzen da. Guañ, ortxe.

Gero, itten zen mallarrak eta artuak eta aunitz ordun oaingo aldetik, guañ gutti. Guañ, aziendak bota kanputara, lenego etzen olko modik, guañ kanbiatzen ai da au.

Iratzik itten ginttun igittikin ebaki, guañ ez igittikin ta ez segekin ya baterez. Ai da kanbiatzen gabetiken egunera bezala, eztakit martxa ontan ze etorriko den, labranza lanin ere yendik gutti aritzeko erraina du (?), fabrikak ein dere eta guañ gelditzen ai dere; eztakit ze pasa bear duun emen.

Emen, bestak ere itten zeren lenao earrak iru auzotan. San Martin bezperan ardizarra edo zikiru iltzen zen eta yendik, ementxe, kozinerak etortzen zeren, prestatzen zittuzten lurko sutan mantenuk, denbora batin eta yaten zen ordun e ederki: paziko zopak, gero zuritabeltza, gero gisadu edarra ere bai, ta gero itxin iñdako ollaxkuk ere bai, etzen konpuestorik ordun oain bezela. Ta, ementxe pasatzen zeren bestak, ongi. Kordionista at etortzen zen, eta gaztiak arekin leertzen zeren. Oaiñ, berrizen, musika gogorak battugu ta batzuk ibiltzen dere dantzan eta bertzik eztakit, or ibiltzen dere, ezta len bezala armonirik elkarrekin kuadrillan, eztakit or, arratseko zortzitan ateiko dere musikak, geldittuko dere amar terditan, afalduko ute, gero ateko dere amabitan eta geo goizeko iru lautan iraulka or, oltxe pasatzen dere guañ.

Lenego, enkanbio, illunabarrin amarra amekak aldin erretiratu, afaldu ta, martxa, tragu batzuk eiñ ostatun ta etxera. Guañ, berrizen, atetzen dere len sarrerako, ateireko denboran oaiñ kanpora.

Ta, yan ere eitten zen, parientik ta denak etortzen zeren. Gu alletu gea emen emezortzi ogei lagun. Kozinera ekartzen zun amazenak eta attak ta yaten genun earki.

Bestaldetik parienteak, gu ere joaten ginen haietara. Batean Sunbillara, bertzean Zubietara eta bertzean ezagunenak genituenak.

Eta, bestak ere egiten ziren orduan majo. Gaur, gaur diferente da ordutikan, gaur ez da jenderik ibiltzen orduan bezala, akitu dira. Orain, musika, arestian erran duguna, plazan, etxetan ez da orduan bezalako armoniarik.

Inauteriak ere egiten dira bi herritan, (edo «herrietan»), Zubietan eta Iturenean. Aski poliki. Lehenago, hau lehenago modatako antiguko legea da segitzen duena. Gerra ondoan izan zen atrasamendu piska bat, mixeria eta, gazteak egin nahi inauteriak, eta alkateak, berrizen, kastigatzeko beldur, eta alkateak erraten zigun: «Zuek egin itzazue inauteriak, baina ez erran nik eman dizuedala permisoa; zuei denei ez dizue deusere eginen baino niri kastigatuko zaitet (zidaate, zidatek)». Andres zena Labayen, Iruñean bazuen anaia bat Alfonso, medikua, ona gainera. Eta, honela.

Gero, orain ia, ordutikan, orain bada libertade gehiago. Orain, jauntzitzen (jazten) dira: tunturroa buruan zintekin, oilarraren lumak goiko punttan, gero bi larru bildotxarenak edo ardiarenak, pollitak, garbi-garbi ederrak, goiko sorbaldan bi joare ttiki eta gerrian haundiak eta horiek behar dute ongi seguratu gerrikoari, bertzenaz gerriak egiten ditu lasoei (lasaiegi egotearekin) jo, eta min eman mutilari (edo «mutilei»).

Eta hementxe zubietarrak etortzen dira bigarreanean eta hemen Iturenen juntatzen da berrogei bat joaldun, gero ondotik etortzen dira karrozak eta, batzuk erokeria batzuk egiten, saltoka eta, piska bat aurpegi tapatuak eta, emakume jauntziak ere bai zenbaitzuk irri (barre) egiteko. Eta hementxe.

Gero hemengoak joaten gara hirugarrenean hara. Han izaten da igual, plazan juntatzen direlarik joaldunak berrogei bat lagun haiei segi bueltaka, joareak jo ahalean jo, zein baino zein gehiago, batzuk nekatuak ere igual, ezin segitu bertzeei piska bat berotuak ere bai eta hark, hark lan gutti aski; bertzeak, berrizen, bizkorrak ere bai, haiek aisa. Eta hola, gero, ja hirugarrenean gazteak akitzen (amaitzen, bukatzen) dute, eta laugarrenean izaten da zaharren partea. Gazteek gonbidatzen dituzte afaltzera, eta joaten gara. Han izaten dugu otordua: lehenbiziko zopa, gero gisadua, gero, aldi batean ez genuen jaten umerririk (arkumerik) (1) inauterietan, baino orain jaten da umerria ere. Orduan oilaskoak eta fileteak tortillan eginak eta honelaxe ongi jaten genuen bai orduan ere, baina orain ja, orain diferente da, orain gehiago. Orain, bada, ez da aldi batean bezelako, senzillo ibiltzen zen orduan jendea baina gaur inportantzi gehixeago ematen diote. Pultsera-reloj esku-muturrean, gero kotxea ere nahi dute gazterik, baina diru irabazten da lana, hor dago koxka, gazterik nahi dute kotxea eta neskekin ibili baina, horretarako lan egin behar eta orain lana ere eskasi antzean..., izanen dira komediak.

(1) «Umerri» eta «arkume» ez dira gauza bera. «Umerri»k ikuspegi berezia azaltzen du: jaki ikuspegia. Belagian dabilena «bildotsa» edo «arkumea» da. Baina hari begiratzu esan daiteke: «Aurten bestetan umerria jango dugu».

Bestaldetik parientik, gu re yuaten giñun eketara. Batin Sunbillara, berzin Zubitara eta berzin izaunenak ginttunak.

Ta, bestak ere itten zeren ordun majo. Gaur, gaur difente da ordutiken, gaur ez da yenderik ibiltzen ordun bezela, akittu dere. Guañ, musika, aixtin erran duguna, plazan, itxetan ezta ordun bezalko armonirik.

Iñautik ere itten dere bi erritan, Zubitan ta Ittunan. Aski poliki. Lenego, au lenego modatako antiguko legia da segitzen duna. Gerra ondun zandu zan atrasamendu pixko bat, mixeria eta, gaztik iñ nai iñautik, ta alkatik berrizen kastitzeko bildur, ta alkatik erraten zigun: «Zuek ittzue iñautik, biño ez erran nik man izutela permisua; zueri deneri ez dizue deusere egiñen biño niri kastigatuko zaittet». Andres zena Labayen, Iruñin bazun anai bat Alfonso, medikua, ona gañera. Ta, ola.

Geo, guañ ya, ordutiken, guañ bada libertade geigo. Guañ, yauntzitzen dere: tunturrua burun zintekin, ollarran lumak goiko punttan, gero bi larru bildotxanak edo ardinak, pollitak, garbi-garbi ederrak, goiko sorbaldan bi yuari ttiki eta gerrin aundik eta orik bear te ongi segutu gerrikuri, berzenaz gerrik itten ttu lasuari yo, ta miñ eman mutillari.

Ta ementxe zubitarrak etortzen dere bigarnin eta emen Ittunan yuntatzen da berrogei bat yoaldun, gero ondotik etortzen dere karrozak eta, batzuk erokeri batzuk itten, saltoka ta, piskoat arpegi tapatuk eta, emakumi yauntzik ere bai zenbaitzuk irri eitteko. Ta ementxe.

Gero emenguk yuaten gera irugarrenin aara. An izaten da igual, plazan yuntatzen deelik yoaldunak berrogei bat lagun ekiri segi bueltaka, yuarik yoalun yo, zein biño zein geigo, batzuk nekatuk e igual, ezin segittu bertziri pixkot berotuk ere bai ta arek, arek lan gutti aski; bertzik berrizen bizkorak ere bai, ek aisa. Ta, ola, gero, ya irugarnin gaztik akitzen ute, ta laugarnin zaten da zarren partia. Gaztik gonbitzen ttuzte afaltzera, ta yoaten gera. An zaten dugu otordua: lemizko zopa, gero gisadua, gero, aldi batin ezkinin yaten umerririk iñautetan, biño guaiñ yaten da umerria ere. Ordun ollaxkuk eta filetik tortillin iñak ta oltxe ongi yaten giñun bai ordun ere, biño guaiñ ya, guaiñ diferente do, guaiñ geigo. Guañ, bada, ezta aldi batin bezalko, senzillo ibiltzen zen ordun yendia biño gaur inportantzi gexigo ematen diote. Pulsera-reloj esku-muturrin, gero kotxi re naite gazterik, biño diru irauzten da lana, or dago koxka, gazterik nai te kotxi ta neskakin ibilli biño, ortoko lan in mar ta guaiñ lana ere eskasi antzan..., zain dere komedik.

BAXE-NAFARRERA - Baigorri

Beraz, mintzatuko naiz puxka bat, Baigorriko herriaz. Badakizue, behar bada, non den Baigorri, mugaren ondoan, eta, oraiko egun guzietako jendeak bizi dira hemen partikularzki laborantzaz. Baina, betidanik, izan da Baigorritik eta emigrazioko tradizio bat eta gure familian ere baditugu Ameriketarat joan diren jende batzu, familiatik joanak direnak eta, uruski (zorionez) egun hauetan baditugu zenbaitzuk honat jinen (etorriko) direnak.

Berriz eta, ikusteko nolaz eta nola hemengo jendeak amerikano sozietatean hain integratuak diren galde egin diot ene ttanttari (nire izebari, izekori) zer zen haren, orain xahartzera doa emeki-emeki, eta, galde egin diot zer zen haren filosofia, eta erran dit:

— Ene filosofia da, zorrak egin zorrak pagatu, zorrak egin zorrak pagatu.

Hori erran duelarik erran behar dut harritu naizela, zeren eta, uste nuen, orain adina goitik joana da, ontasun anitz (asko) badu eta uste nuen puska bat eta, bere bizia beste, goxatuz bezala ikusiko zuela. Eta ikusten dut gero eta gehiago laneko amodio baduela, eta hori entzutean puxka bat min ukan dut ene bihotzean, zeren eta, ikusten du anitz hemendik, hemengo familiatik, anitz jende joan direla Ameriketara eta, han nik uste, ez dira denak aberastu e, baina, batzu eta nik uste anitz jende ere aberastu den eta ikusten dut ez dutela oroitzapenik batere edo hasteko oroitzapen guti dutela beren herriaz eta Euskalerriaz.

Nik uste Ameriketako bizia arrunt beretuttia (berea egina) duten eta hemengo prolemak, nik uste, ahantzi dituzte eta gainera nahi lukete hemengo Euskalerria puxka bat izan dadin lehengo lehen utzi duten Euskalerria bezala. Hona jiten (etortzen) direlarik harrituak dira:

— Oo, ze bide berriak dituzuen. Eta hango etxean traktorraz edute (?).

Eta beti harrituak dira nolaz hemengo ze kanbiatzen ari diren eta pentsa eman ezazu ez dutela sekulan onartzen ahal hemengo hemen pasatzen diren istorioak eta partikularzki hegoaldean diren, politika mailan, diren eztabaidak.

Eta hori, beti ohartzen naiz, eta familiakoak hasteko horrela dira, nahi lukete Euskalerria finkatu lehengo Euskalerria bezala. Hemen etxeak mendietan egiten direlarik ez dute batere hori, gauza hori, untsa (ontsa, ondo) hartzen.

BAXE-NAFARRERA - Baigorri

Beraz, minzatuko niz puxka bat Baigorriko erriaz. Badakizie, behar bada, nun den Baigorri, mugaren onduan eta, oraiko egun guzietako yendeak bizi dira emen partikulazki laborantxaz. Baina, betidanik, izain da Baigorritik eta emigrazioko tradizioe bat eta gure familian ere baditugu Ameriketarat yoan dien yende batzu, familiatik yoanak dienak eta, uruski egun otan baditugu zonbaitzuk onat yinen dienak.

Berriz eta, ikusteko nolaz eta nola hemengo yendeak amerikano sozietatean ain integratu dien galde egin dakot ene ttanttai zer zen aren, oain xahartzea doa emeki-emeki, eta, galde eiñ dakot zer zen aren filosofia, eta erran dat:

— Ene filosofia da, zorrak egin, zorrak pagatu, zorrak egin, zorrak pagatu.

Hori erran dalaik erran behar dut arritu nizala, zeen ta, uste nuen, oai adina goiti yoana da, ontasun aniz badu eta uste nun puxkat eta, bere bizia beste, goxatuz bezala ikusiko zuela. Eta kusten dut gero ta geiago laneko amodio badiela, eta ori entzutean puxka bat min ukan dut ene biotzean, zeen ta, ekusten dut anitz emendik, emengo familiatik, anitz yende yoan diela Ameriketara eta, han nik uste, ez dira denak aberastu e, bainan, batzu eta nik uste aniz yende re aberastu den eta kusten dut eztutela orhoitzapenik batere do hasteko orhoitzapen guti dutela beren erriaz eta Eskualerriaz.

Nik uste Ameriketako bizia arrunt beretuttia duten eta hemengo prole-mak, nik uste, antzi ituzte eta gainera nai ukete hemengo Eskualerria puxka bat izan dadin lehengo lehen utzi duten Eskualerria bezala. Huna yiten dilaik arrituak dira:

— Oo, ze bide berriak dituzuen. Eta hango etxean traktorraz edute (?) (Traktorra ere dute (?)).

Eta beti erritiak dira nolaz hemengo ze kanbiatzen ai diren eta pensa emanu ez dutela sekulan onartzen ahal hemengo hemen pastzen diren istorioak eta partikulazki egoaldean diren, politika mailan, diren eztabadak.

Eta hori, beti ohartzen niz, eta ene familiakuak asteko ola dira, nai lukete Eskualerria finkatu lehengo Eskualerria bezala. Hemen etxeak mendietan eiten dielaik ez dute batee hori, gauza hori, unsa artzen.

Eta gainera, pentsa eman ezazu bestalde, beste aldean aditzen dituztelarik gertatzen diren gauzak horiek biziki ez dituzte onartzen ahal.

Gainera, badakizu zer den, zer den sozie..., amerikano sozietatea, ez biolentzia ez dituzu sozietate hartan onartzen ahal.

Eta hori biziki, biziki gauza minberagarria atxematen dut, zeren ta, hemen, hemengo jendeak bizi dira ahal duten bezala, entseatzen dira bizitzera ez bakarrik laborantzatik eta, hartako da sortu hemen, direla bizpahiru urte, industria puxka bat, kooperatifa bezala, zurgintzarekin mubleak (muebleak) eginez, eta jadanik, industria horrek ematen ditu berrogeitamar lan enplegu.

Hemengo (honako) ez da gaizki, zeren eta, eta erran behar da gainera lantegi hori dela, nik uste, haundiena Baigorri eta Baionaren artean; ez da beste horrelako lantegi haundirik.

Gero, nik uste, lantegi hori, lantegi hori, sortu duten jendeek merezi dituzten gure laguntza guziak, zeren eta, izan dituzte trabak administrazio aldetik, frantses administrazio aldetik, izan dituzte, baina traba haundienak izan dituzte hemengo jendeekin, zeren eta, hemengo jendeak beti bizi izan dira, erran nahi dut, ez dut erranen haundien pean, zeren hemen ez bait da haundirik izan, baina beti beste norbaiten pean izan dira eta ez dute konfientzarik beren artean, ez dute konfientzarik izan hemengo gazteek zerbait montatzen ahal zutela, hemengo, hemengo gazteekin bere izpirituarekin, laguntza guttirekin eta erran behar da, beraz, traba haundienak izan dituztela hemengo jendeekin. Lehenik ez dute lurrik atxeman beren lantegiaren egiteko eta gero zernahi gauza erran dute lantegi horren inguruan erranez, bueno, lantegi horiek ez zutela iraunen, egonen zela zutik bizpahiru urte eta gero lehertuko zela; erran dute ere lantegi horretan bestealdeko errefuxiatu guziak ariko zirela lanean. Horiek horrela, mementuan hasteko lantegi hori untsa doa eta pentsatzen dugu heldu den (datozen) urte horietan ere laneko enpleguak emendatuz (gehituz) joanen direla.

Nik uste kanbiamendu haundiak gertatu eta gertatzen diren urte hauetan. Orai artio,beraz, laborantzatik, hemengo jendeak bizi izan dira gehienak eta hori, gauza hori, orai kanbiatzen ari den eta kanbiatuko den nik uste baino gehiago.

Badakigu zerendako halako zen (sic) eta oraiko laborantzak lehen baino aise gehiago ematen bait du, lehenik, teknikaren aldetik, etxetan biziki untsa ekipatuak dira; gainera, bada beste gauza bat ere, hori ez da teknikaren aldetik baina soziologiaren aldetik; zorigaitzez orai artio hemen anitz etxetan segida (jarraipena) bazen, etxearen atxikitze (eusteko, gordetze) eta orai anitz etxetan ez da segidarik izanen, erran nahi baita etxe batzu ez dakigula zuzen ze, ze bilakatuko diren zutik egonen diren edo ez, eta hor behar da ikusi, anitz, partikularzki mendietan diren etxeak eta badakigu hemen badirela etxeak biziki urrun, herritik biziki urrun sei zazpi kilometro bait dira herritik etxe hartara heltzeko eta konprenitzeko da gazte horiendako ez dela batere errex hor bizitzea, zeren eta, aurtengo, oraiko mendetan, oraiko mendean senditzen dugu denek eta partikularzki gazteek komunikazioak nahi ditugula, edo baita,

Eta gainera, pensa emazu bestalde, beste aldean aitzen ituztelaik gertatzen diren gauzak orik biziki ez dduzte onartzen aal.

Gainera, badakizu zer den, zer den sosie..., amerikano sositatea, ez biolentzia ez tuzu sositate artan onartzen aal.

Eta ori biziki, biziki gauza minberagarria atxemaiten dut, zeen ta, emen, emengo yendeak bizi dira ahal duten bezala, entseatzen dira bizitzera ez bakarrik laborantxatik eta, hartako da sortu emen, diela bizpairu urte, industria puxka bat, kooperatifa bezala, zurgintzarekin mubleak eginez, eta yadanik, industria orrek emaiten ditu berrogeitamar lan enplegu.

Emengo ezta gaizki, zeen eta, eta erran bear da gainera lantegi ori dela, nik uste, haundiena Baigorri eta Bayonan artean; ezta beste olako lantegi aundirik.

Gero, nik uste, lantegi ori, lantegi ori, sortu duten yendek merezi dituzten gure laguntza guziak, zeen ta, izan dituzte trabak aministracione aldetik, frantses aministracione aldetik, izan dituzten, bainan traba aundienak izan dituzte hemengo yendekin, zeen ta, emengo yendek beti bizi izan dira, erran nahi dut, ez dut erranen haundien pean, zeen hemen ezpeita haundiik izan, bainan beti beste norbaiten pean izain dira eta eztute konfientzarik been artean, eztute konfientzarik izan emengo gaztek zerbait montatzen ahal zuzela, hemengo, hemengo gaztekin bere izpirituarekin, laguntza guttikin eta erran bear da, beraz, traba haundienak izan dituztela hemengo yendeki. Lehenik eztute lurrik atxeman beren lantegiaren egiteko eta gero zernai gauza erran dute lantegi orren inguruan erranez, bueno, lantegi orik eziela iraunen, egonen zela xutik bizpairu urte ta geo lehertuko zela; erran dute ere lantegi ortan bestealdeko errefuxiatu guziak aiko ziela lanean. Horiek hola, mementuan hasteko lantegi ori unsa dua eta pensatzen dugu eldu den urte oritan ere laneko enpleguak emendatuz yuaren diela.

Nik uste kanbiamendu aundiak gertatu ta gertatzen diren urte otan. Orai artio, beraz, laborantxatik, emengo yendeak bizi izan dira geyenak eta ori, gauza ori, oai kanbizatzen ari den eta kanbiatuko den nik uste beno geiago.

Badakigu zendako alako zen (sic) eta oaiko laborantxak leen bano aise geiago ematen baitu, lehenik, teknikan aldetik, etxetan biziki untsa ekipatuak dira; gainera, bada beste gauza bate, ori ezta teknikan aldetik bainan suziologian aldetik: zorigaitzez orai artio emen e aniz etxetan xegida bazen, etxean atxikitzeke eta orai aniz etxetan ez da xegidarik izanen, erran nai baita etxe batzu ez dakigula xuxen ze, ze bilakatuko diren xutik egonen diren edo ez, eta hor bear da ikusi, aniz, partikulazki mendietan diren etxeak eta badakigu emen badiela etxeak biziki urrun, erritik biziki urrun xei zazpi kilometra baitira erritik etxe artara eltzeko eta konpreintzeko da gazte oriendako ez dela batee errex or bizitzea, zeen ta, aurtengo, oaiko mendetan, oaiko mendean senditzen dugu denek eta partikulazki gaztek, komunikazioak nai ditugula, edo baita, nai dugula ahal bezain hurbil bizi bat ta batzu ta besteki. Komunikazio orren egiteko

nahi dugula ahal bezain hurbil bizi bat eta batzu eta besterekin. Komunikazio horren egiteko (hori egiteko), baditugu, bueno, telefonoa, eta ageri da ikusten delarik, Baigorriko telefonoko anuarioa, nola, hemen, nola loditu den bospasei urtez, horrek erran nahi du zerbait pasatu dela. Anitz urtez telefonoa, jendeek, so egiten zuten telefonoari e, gauza, aberatsen gauza bat bezala, eta orai, bat-batean senditzen da, jendeek senditzen dute telefonoaren beharra, alta («Bada» eta «berriz» en arteko zerbait), bizi izan dira mendeak eta mendeak telefonorik batere gabe eta bat-batean ikusten ditugu jende xahar batzu, galde eginez (eskatu) , galde egiten dutela telefonoa, bat-batean senditzen dute telefonoaren beharra badela, eta hori, nik uste, gauza biziki inportanta den.

Beraz, berriz, delako gure etxez mintzatzeko, zorigaitzez anitz etxetan ez da segidarik, badira gazteak baina ez dute laborantzatik bizi nahi, e, lehen neskak joaiten ziren lehenik etxetik kanpo, eta beti bazen mutikoen artean bat bederen etxearen segidan hartzeko. Orai, mutikoen eginbidean (?) dira, mutikoak ez dute laborantzatik bizi nahi eta hor dudarik gabe ikusiko ditugu heldu den (datozen, hurrengo) urte horietan etxe batzu, ez dakit zuzen ze gertatuko den, ea beste norbaitek hartuko duen segida, erran nahi bait da, etxeak haundituko diren, ttipituko dira nonbrean (kopuruz) baina haundituko beharbada laneko moldeetan. Eta gero, bada beste gauza bat ere, hemen ikusi dituzue beharbada muruetan «turismoari, ez».

Badakizu, badakizue turista anitz badela gure leku hauetan, eta horretan ez da errex trenkatzea (haustea moztea), zeren eta, turismo horrek anitz jende laguntzen ditu, anitz laborariek luatzen (alkilatzen) dituzte beren etxean apartamenduak, badituzte apartamenduak eginak espresuki turistendako eta horiek luatzen dituzte, luatuta bi hilabetez, horrek diru freskua etxe horietara ekartzen duela.

Eta memento berean ez da onartzen ahal ekonomia bizi dadin eta... turismoaren, turismoaren ritmoarekin.

Hemen ageri da, hemen bizi dena(k) ikusten du bederatzi hamar hilabetez arrunt hemengo bizia, arrunt (asko, erabat) tapatzen da, ttipitzen da, eta bat-batean ikusten dugu ekainaren azken egunetan otoak (kotxeak) alde guzietarik eta hori konprenitzeko da hemengo gazteek ez dutela zuzen untsa ikusten (oso ondo ikusten).

baditugu, bueno, telefona, eta ageri da ikusten delaik, Baigorriko telefonako anuaria nola, emen, nola loditu den bospasei urtez, orrek erran nai du zerbait pastu dela. Aniz urtez telefona, yendek, so egiten zuten telefonari e, gauza, aberatsen gauza bat bezala, eta uai, bat-batean senditzen da, yendek senditzen ute telefonaren bearra, alta, bizi izan dira mendeak eta mendeak telefonaik bate gabe eta bat-batean ikusten ditugu yende xaar batzu, galde eginez, galde egiten dutela telefona, bat-batean senditzen dute telefonan bearra badela, eta ori, nik uste, gauza biziki inportanta den.

Beraz, berriz, delaku gure etxetaz mintzatzeko, zorigaitzez aniz etxetan ez da xegidarik, badira gazteak bainan ez dute laborantxatik bizi nai, e, lehen neskak yoaiten ziren lehenik etxetik kanpo, eta beti bazen mutikoen artean bat bedeen etxearen segidan artzeko. Oai, mutikoak einbidean (?) dira, mutikoak ez dute laborantxatik bizi nahi eta hor duaik gabe ikusiko ditugu heldu den urte oritan etxe batzu, eztakit xuxen ze gertatuko den, ya beste norbaitek artuko duen xegida, erran nai baita, etxeak haundituko diren, ttipituko dira nonbrean, bainan haundituko bearbada laneko moldetan. Eta gero, bada beste gauza bat ere, hemen ikusi ditzue bearbada murietan «turismoari, ez».

Badakizu, badakizue turista aniz badela gure leku otan eta, eta ortan ezta errex trenkatzea, zeen eta, turismo orrek aniz yende laguntzen ditu, aniz laborariak luatzen dituzte beren etxean apartamentuak, badituzte apartamentuak eginak espresuki turistendako eta orik luatzen dituzte, luaita bi ilabetez, orrek diru freskua etxe orietara ekartzen duela.

Eta memento berean ez da opartzen aal ekonomia bizi dadin eta... turismoaren, turismoaren ritmoareki.

Emen ageri da, hemen bizi dena ikusten du bedeatzi amar ilabetez arrunt emengo bizia, arrunt tapatzen da, ttipitzen da, ta bat-batean ikusten dugu ekainaren azken egunetan otoak alde guzietaik eta ori konpreitzeko da emengo gaztek ez dutela xuxen untsa kusten.

BAXE-NAFARRERA - Heleta

Orai kontatuko dudan istorioa, Garaziko herri batean gertatua da, herri ttipi batean aspaldiko denboretan, ikusiko duzuen bezela.

Uda zen, eta gaua, eta udan badira egun batzu biziki (oso) beroak, sapa (bero gogorra), ezin lokar ohean. Eta bazen etxe batean norbait hala ohean, itzul eskuin, itzul ezker, beroarekin ez zuen lo egiten ahal. Eta haren ganbara (gela) etxearen beheko aldean zen, ez gainean, behean, eta normalki beheko ganbaretan leihoan badira burdin batzu, hartan ere baziren ere burdinak, beraz.

Eta bere ohean ari zelarik honela eskuin itzul ezker itzul, entzun zituen elizako dorrean, gauerdiko hamaika, barkatu, gauerdiko hamabi dangak. Eta bere baitan egin zuen: «To, gauerdi, sorginen tenorea (garaia), erraten zian ene amatxik (amona)».

Eta, hara, hain xuxen, hori erran bezain laster urrats batzu entzuten dira kanpoan. Era urratsak haren leihoari buruz heldu, izitzen da (beldurtu).

«Zer debru duk hori orai». Eta leihoak idekiak. Beharrik (eskerrak) burdinak han ziren eta, ikusten du, beraz, norbait burdinetan lotzen, eta leihoan gainerat iragaiten. Iztua da. Ikusten du han itzala, argizagia (ilargia) bait da kanpoan. Itzala ikusten du ganbaran.

Iztua oi (ikara agertzeko interjekzioa), eta bihotza pan-pan-pan ari, eta norbait ere, ta erraten dio:

— *Aña Mari!*

— *«To, hori badakiat nontxea galdu den». Aña Mari, bon, gero ikusiko dugu nor den.*

Eta ez da erreposturik (erantzunik) ematen. Berriz ere, «Aña Mari» eta betiere erreposturik ez. Hiru lau aldiz Aña Mari eta erreposturik ez.

Gure gizona jauzten da leihotik, eta ohean denak erraten du:

— *To, ez zian Aña Mariren enbeña (tira) handirik hain fite (agudo) joateko.*

Baina ez bait zen joana, bazen abar meta bat etxearen ondoan, eta han hartu zian abar bat puxka bat luxea, eta jin (etorri) zian berriz abarra burdinan artetik pasatu eta oheari zirrikaka hasi.

BAXE-NAFARRERA - Heleta

Oai kontatuko dutan istoriua, Garaziko herri batian gertatia da, herri ttipi batian aspaldiko denboretan, ikusiko duzien bezela.

Uda zen, ta gaua, ta udan badira egun batzu biziki beroak, sapaa, ezin lokar ohian. Ta bazen etxe batean norbait hala ohian, itzul eskun, itzul exker, beroarekin etzin lo egiten ahal. Eta haren ganbera etxearen behereko aldean tzen, ez gainean, beherean, ta normalki behereko ganberetan leihoan badira burdin batzu, hartan ere baziren ere burdinak, beraz.

Eta bere ohian ai zelaik hola eskun itzul exker itzul, entzun zitin elizako dorrian, gauerdiko hameka, barkatu, gauerdiko hamabi dangak. Ta bere baitan intzin: «To, gauerdi, sorginen tenoria, erraten tzian ene amatxik».

Eta, hara, hain txuxen, hori erran bezain laxter urrats batzu entzuten ditira kanpoan. Eta urratsek haen leihoari buruz heldu, izitzen da.

«Ze debru duk hori uai». Eta leihoak idekiak. Beharrik burdinak han tzien ta, ikusten du, beaz, noit burdinetan lotzen, ta leihoan geineat iraiten. Izitia da. Ikusten du han itzala, argizalia baita kanpoan. Itzala ikusten du ganberan.

Ixitia oi, eta bihotza pan-pan-pan ari, ta norbait ere, ta erraten dako:

— Aña Mari!

— «To, hori badakiat nontxia galdu den». Aña Mari, bon, gero ikusiko dugu nor den.

Ta ezta errepostuik emaiten. Berriz ere, «Aña Mari» ta betiere errepostuik ez. Hiru lau aldiz Aña Mari ta errepostuik ez.

Gure gizona yauzten da leihotik, ta ohian denak erraiten du:

— To, etzian Añamarin enbeña handiik hoin fite yoaiteko.

Baina ez paitzen yoana, bazen abar meta bat etxearen ondoan, ta han hartu ziin abar bat puxka at luxia, ta yin zin berriz abarra burdinan artetik pasatu eta ohiari zirrikaka hasi.

Oraigotik ez zian, alegia, ez entzuna egiten ahal ohean zenak, eta ez zian bere burua salatu nahi, jakin nahi bait zian nor zen Aña Mariz hola agradatua zena. Eta azkenean egiten du, alegia, iratzartzen (ernatzen) ari, halako intzirin bat, hmmm!, eta:

- Aña Mari. Eta,*
- Nor da hor? Eta,*
- Ni. Eta,*
- Nor ni? Eta,*
- Ez bait naixu (nauzu) ezagutzen?*

Bai, xua erran dut, beraz, xuka ari zen bera, xuka erraiten dute Garazin.

- Ez bait nauzu ezagutzen. Eta,*
- Emak hire izena.*
- Alegia, ez ezazula, ez ezaxula, alegia, ezezaguna egin. Badakixu nor naizen.*

Azkenean, beti ez galdeka ari eta ez erraten eta, «ez zaitak salatuko bere izena; badaukat zerbait pentsatu, joanen duk hori, mesfidatuko dut zerbaitetaz ez badut», erraten zait.

- Bo, heldu, heldu nauxu leihorat, heldu nauk leihorat.*

Bere ohean berean xutitzen da, xokoan han, leihotik ikusi gabe, bestitzen da, argia pizten du, eta jauzi (salto) baten joaten da aitzinerat (aurrera) eta bestea jauzian, zihurketan (laisterka, korrika) joan zen. Aña Mariren orde, haren anaia zian, sotanarekin apezgaia.

— — — — —

Hau, berriz, Jatsun gertatua da. Jatsu, bi Jatsu badira, baina bat da Ustaritzeko ondoan eta bestea Garazin. Garazitik, Donibanetik eta bos-pasei kilometrotan.

Lehenago etxeetan baziren aniz jende, eta haurrak hamaika hamabi urtetan joaten ziren sehi edo mutil (morroi). Eta zer egiten zuten behizain eta haurtzain eta horrela. Beraz, Jatsun etxe batean bazen neska bat horrela, izanen zituen hamabost, hamasei urteko bat eman dezagun, hor zen zonbait urte hartan etxetik joana, baziren hamar etxean, eta beste etxe horretan aritzen zen, bon, xuriketaren egiten puxka bat emaztearen laguntzen eta behizain eta belarretan hasten zirelarik arraztelan eta, horrelako lan batzutan. Eta neska horrek ere, xuxen, bere ganbara behean zuen, baina han leihoan ez zen burdinik, eta egun batez nagusia joan zen kanporat eta ikusi zituen istilian (lokatza, lohia) halako xilo (zulo) batzu eta gizonaren hatzak, eskuineko zapataren hatzak eta ezkerrekoarekin ez. Eta baziren sei zazpi horrela eta beti eskuineko zapataren hatza bai eta ezkerrekorik ez, eta ezkerrekoaren orde, ziloño bat:

- Zer debru duk hori? Animaleko (oso haundiak) urrats batzu.*
- Era urrats haiek justu-justua neskaren leihoan gelditzen.*
- Aarrun!*

Oaigotik etzin, alegia, ezentzuna egiten ahal ohian zenak, ta etzin bere buria salatu nahi, yakinahi baitzin nortzen Aña Mariz hola agradatia zena. Ta azkenian egiten du, alegia, iratzartzen ari, halako intzirin bat, hmmm!, ta:

- Aña Mari. Ta,
- Nor da hor? Ta,
- Ni. Ta,
- Nor ni? Ta,
- Ezpeinixu ezautzen?

Ba xua erran dut, beraz, xuka ari zan bera, xuka erraiten dute Garazin.

- Ez bainuzu ezautzen. Ta,
- Emak ire izena.
- Alegia, etzazula, etzaxula, alegia, ezezauna in. Badakixu nor nizan.

Azkenean, beti ez galdeka ari ta ez erraiten ta, «etzatak salatuko bere izena; badakot zeit pentsatu, yoain duk ori, mesfiatuko ut zeitetaz ez baut», erraiten zait.

- Bon, heldu, heldu nuxu leihorat, heldu nuk leihorat.

Bere ohian berean xutizen da, xukhonon, leihotik ikusi gabe, bestitzen da, argia pizten du, eta yauzien bat yoaten da aintzinat eta bestia yauzian, zihuriketan yoantzen. Aña Marin orde, han anaia zin, sotanarekin apezgaya.

— — — — —

Hau, berriz, Yatsun gertatia da. Yatsu, bi Yatsu badira, baño bat da Ustaritzeko ondoan ta bestia Garazin. Garazitik, Donibanetik eta bospa-sei kilometretan.

Lehen etxetan baziren aniz yende, eta haurrak hameka hamabi urtetan yuaiten ziren sehi edo mutil. Ta ze eiten zuten behizain eta haurtzain eta hola. Beraz, Yatsun etxe batean bazen neska bat hola, izan zitin hamabost, hamasei urteko bat eman dezaun, hor tzen zomeit urte hartan etxetik yoana, baziren hamar haur etxen, ta beste etxe hortan aritzen zen, bon, xuriketan eiten puxka bat emazteaen laguntzen eta behizain eta belarretan hasten zielaik arraztelan eta, holako lan batzutan. Ta neska horrek re, xuxen, bere ganbara behian tzien, bañan han leihoan etzen burdinik, ta egun batez nausia yoan tzen kanporat ta ikusi zitin ixtilian halako xilo batzu ta gizonan hatzak, eskuineko zapetan hatzak ta exkerrekoarekin ez. Ta bazien sei zazpi hola ta beti eskuineko zapetan hatza ba eta exkerrekorik ez, ta ezkerrekoaren orde, ziloño bat:

- Ze debru duk hori? Animaleko urrats batzu.
- Ta urrats hek yusti-yustia neskan leihoan gelditzen.
- Aarrun!

Eta, joan zen emaztearengana eta:

- *Zu zauri (zatoz) honat, zauri honat eta zerorrek ikusiko duzu, zauri.*
- *Zer gauza bitxia, zango bakarrik hemen; haatik (hala ere), ez dut konprenitzen zer den hori. Zu baleki (?) baina joanen naiz arotzaren (errementaria) ikustera eta erranen dizkiot hala ere oraiko gazteekin ez baita gertatzen ez denik. Erranen diot para (jarri) behar dizkiola burdin batzu leiho hauetan enkaseta (sartuak), badakizu.*

Joaten da, beraz, arotzaren etxeka; arotza jiten da, izaiak (neurriak) hartzen ditu, eta egun hartan berean egiten ditu bere bost burdinak, eta ezartzen han leihoan bere bost burdinak eta joaten da. Bon.

Gero, lohia xukatu (lehortu) zen, eta, denborak joan ziren, eta handik eta zenbait hilabeteren buruan, delako neskato gazteak erran zion etxekandereari halako ahalge (lotsa) batekin:

- *Etxekanderea, heldu den (datorren) astetik goiti (aurrera) utziko zaitut, etxera joanen naiz.*
- *Etxera joan! Eta zerendako (zergatik) joanen haiz etxera? Ez bahaiza (ez al haiz?) hemen gustatzen? Ta,*
- *Bai, bai, ona; joan behar dut hala eta ere. Eta,*
- *Zerendako joan behar dun?*
- *Ezkontzen bait naiz.*
- *A, ba, hori berri ona dun, ezkontzen baldin bahaiz. Eta, norekin ezkontzen haiz?*
- *Beñat zapatainarekin.*

A, hara misterioa non zen. Beñat zapataina zango motza zen. Eskuineko zangoa han zuen, eta ezkerrekoan batere ez, ziriño bat.

Ta, yoan tzen emazteantxena ta:

- Zu zauri honat, zauri honat ta zeurrek ikusiko duzu, zauri.
- Ze gauza bitxia, zango bakarrik hemen; ahati, eztut konprenitzen zer den hori. Zu baleki baina (?) yoain niz ahotzaen ikustea eta errain daizkot hale oaiko gaztekin ezpaita gertatzen ez denik. Erran dakot para behazkola burdin batzu leihootan, enkaseta, baakizu.

Yoaiten da, beraz, ahotzaen etxeka; ahotza yiten da, izaiak, hartzen tu, ta egun hartan berean iten tu bere bost burdinak, ta ezartzen han leihoan bere bost burdinak ta yoaiten da. Bon.

Geo, lohia xukatu zen, ta, denborak yoan tzin, ta handik eta zumait hilabeten burian, delako nexkato gazteak erran tzakon etxekanderiari halako ahalge batekin:

- Etxekanderia, heldu den asteti goiti utziko zitut, etxea yoain niz.

— Etxea yoan! Ta zendako yoan hiz etxea? Ta ez bihiza hemen gustatzen? Ta,

- Ba, ba, ona; yoan behar dut hala ta ere. Ta,

- Zendako yoan behar aun?

- Ezkontzen biniz.

- A, ba, hoi berri ona dun, ezkontzen balin baiz. Ta nokin ezkontze haiz?

- Beñat tzapatainaekin.

A, hara misterioa nun tzen. Beñat tzapataina zango motza zen. Eskuineko zangoa han tzien, eta ezkerrekoan batez, ziriño bat.

BIZKAIERA - Lezama

Nik euskara kontuan esango dizuet gauza bat e, ba euskerarekin badabiltza hainbeste ahalegin egiten ez da, baina ez dut, ez dut ikusten aurrerapiderik bat bere (ere) ez. Bueno, lehen, ba Frankoren ostean, sartu zen hau zer hau ez da, hau gaitz hau eta oraindinokarren bere horrek segitzen du, denak dabiltza ikastoletara eta halako zerbait, baina etxetik ez datorren legez simindurik (hazirik?, oinarririk? zimendurik?) bat bere gurasoetatik eta, euskerak ez dakit zer izango duen ez da, baina badabiltza beharrean (lanean) eta igual urtengo du denporaz, baina ez dut kanpoan ezertariko bere aurrerapiderik hemendik, hori euskeraren kontuan esango dizuet.

Eta gero, ba, baserri kontuan, baserri kontuan, bueno, esan litezke gauza asko. Ba, guk egiten dugu hemen bi gauza ez da, eta ahalegina guk egiten dugun moduan egingo balute beste batzuk, baina gazteak ez daukaten legez, beste baserrietan denak doaz estudiora, eurek, gurasoak bakarrik daude hor eta, ba horiek, baserri kontuan bere, ez dakit zelan joango den aurrerantzean, baina, esperantza ez da galdu behar guztiz, eta, ba, izango da zer edo zer igual ez da denporaz, horixe.

Gero, kostunbretan nik ez dakit, kostunbreak orain ezin daitezke kalkulatu bere zelan doazen, ba, jaiak eta denak, dena nahaste hutsa dago, eta ba, denporaz ikusi behar (?) direna zer urtengo duen, baina por aora ez dago bat bere ezertan bere, lehendik oso kanbiatuta dago dena eta oraingo kostunbreekin nik ez dakit zer esan.

Gu gerra denporatik, horrien denporatik, ba gorrien denporako gauzak, zer esango dut ba, hemen gero honek sartu zirenean geroko gauzak esango dut. Ba hasi, hemen bonbardeoak eta zeratatik, eta gero joan ginen hor, baserri batzutara, han ostaldu ginen, eta gero handik gudariak eta etorri ziren hemendik eta aurrera eroan (eraman) ziguten, eta zerera, Bilbora joan ginen. Eta Bilbon han ostaldu ginen, han Maria Diaz de Haro edo handik goitik, eta gero hantxe egon ginen, San Antonio pasatu artean, eta etorri ginen ekaina atzenetarantz (azken aldean) honantz.

BIZKAIERA - Lezama

Nik euskera kontuen esango dotzuet gausa bat e, ba euskeriagas badabis ainbeste alegin eiten esta, baya estot ikusten aurrerapiderik bapes. Bueno, len, ba Frankon ostian, sartu sen au serau esta, au gatxau, da ondiñokarren be orrek segiduten dau, danak dabis ikastolatara eta olako sebaít, baye etzetik estatorren les simindurik bape gurasoatetik eta, euskeriak estakit ser ixango dauen esta, baye badabis biarrian ta igual urtengo dau denporas, baye estot ikusten kanpoan esetariko be aurrerapiderik ametik, ori euskerian kontuen esangotzuet.

Eta gero, ba, baserri kontuen, baserri kontuen, bueno, esan leikes gausasko. Ba, guk iten dou amen bi gaus esta, eta alegiña guk iten dou moduen ingo baleukie beste batzuk, baye gastiak estaukien les, beste baserrietan danak doas estudiora, eurek, gurasoak bakarrik taus or eta, ba orrek, baserri kontuan be, estakit selan yoango dan aurrerantzian, baye, esperantzia esta galdu biar gustis, eta, ba, ixengo da seoser igual esta denporas, oixe.

Gero, kostunbretan nik estakit, kostunbrek oiñ esin leis kalkulau be selan doasen, ba, yayek eta danak, dana naste utsa dau, eta ba, denporaz ikusi bixe diesena (sic) se urtengo daun, bayen por aora estau bape esetan be, lendik oso kanbieta dau dana eta oingo kostunbrekas nik estakit ser esan.

Gu gerra denporatik, gorrien denporatik, ba gorrien denporako gausek, ser esangot pa, amen gero onek sartu sienien geroko gausak esangot. Ba asi, amen bonbardeoak eta seatatik, ta gero yoan gintzesan or, baserri batzutara, an ostaldu gintzesan, da gero andik gudariiek eta etorri sien ametik eta aurrera eroaoskun (sic), da serera, Bilbora yoan gintzesan. Da Bilbon an ostaldu gintzesan, an Maria Diaz de Haro edo andik goitik, da gero antxe eon gintzesan, Sanantonio pasau artian, da etorri gintzesan junio atzenetarantza onantza.

Eta gero hemen dena ba desastre bat topatu genuen, dena geure etxean soldaduak, eta ez ziguten itxi (utzi) sartzen, hor kanpoan ahal den moduan egon ginen, eta gero ba, etxera etorri zitzaigun aitari eta amari gaisoa (gaisotasuna), tifusa sartu zitzaien eta txarto ibili ginen. Eta umeak bere bai, bi gaixorik, aita hil zitzaigun, eta gero hala ekiten aurrera, ama bere gaisorik, sei ume eta geure miseriak itzalak (oso haundiak) pasatu genituen, eta zertara edo hartara aurrera jarraitu, eta urten dugu.

Eta gero, orain hementxe baserrian gaude, besteak ezkondu ziren, hiru, abade bi etxeakoak hortik dira eta orain geu hemen, badarabilgu ahal den moduan baserria geu biok eta amarekin, eta holantxe goaz aurrera.

Orain beste gauza bat esango dizuet, Mikel Zarateren zera, Lezamako abadea. Geure lagun haundi izan zen, beti egoten zen hemen etxera etorrita nire nebekin («anaia» emakumearentzat), eta hementxe zen, oso alegrea, txistoso, bromista eta abade zintzo-zintzoa. Eta berak euskararen ganean (euskarari buruz), bueno, itzalezko zera, gure amari egiten zizkion preguntak, kojuten (hartzen) zizkion berbak (hitzak), ba euskera kontuan, gero berak eskribitzeko bere liburuetan eta zerean. Hementxe egoten zen bera gurekin bazkaltzen sarri, jaietan bere bai sarri, bera etortzen zen hona, eurena han goiko, goiko fiesta zen eta gurea hemengo behekoa, eta hementxe egoten zen kasik urte guztietan bera, gurekin. Eta nire nebekin joaten zen hortik, edo mendira edo, bueno, leku askotara, oso, betik ziren eurek elkarrekin, eta oso sentitu genuen ez da, bere heriotzea.

— — — — —

Ze Txorierrin hemen baserriarekin bizimodua ateratzeko gaitza, oso gaitza. Zer kooperatibetan eta, pentsua bere asko kobratzen dute. Askokobratuz geroan (ezkeroan, kausal eta kondizional arteko kutsua hartzen du) behar egin bai, baina dirurik ez duzu ateratzen. Eta dirurik atera ezean, zer egingo duzu ba? Ganadua kendu, edo nora, nora edo hara beharrean joan behar, beste non edo non dirua ataritzen. Ze ganaduekin, ba, ez dago zer eginik; zer pentsua behin hogeitamabost pezeta kiloa pagatuz geroan behiekin aber zer egiten duzun. Egin bai, asko edukiz geroan, ba ekin eta behar asko eginda ba dirua pitintxo bat atera egiten duzu, baina gitxi (gutxi). Eta kanpoan behar eginez geroan obreroa non edo non... zer edo zer behar egiten, han jornala ateratzen duzu, eta hala libre egoten (?) zara; faziltxoago dirua atera eta... ez dakit, ba, nik.

— Ez, bat bere ez, gazteek hemen beharra egin gura (nahi) dute tailerretan, eta halako non edo non behar egin gura dute. Zer labrantzan ikusten dute euren aita eta ama beharrean ahalean dabiltzala, eta ez dutela ikusten, ez dutela ateratzen dirurik. Dirua ateratzeko diru pitin bat ikusten ez baduzu pozik bere ez dauka gazteak bere. Eta gazteak bere zer egiten du, a bai, ba dirua dagoen lekura hara joan behar.

Da gero amen dana ba desastre bat topau gendun, dana geure etzian soldaduek, da es euskun itxi sartzean, or kanpoan al dun moduen egon gintzesan, eta gero ba, etzera etorri yakun aiteri taamari gaixoa, tifusa sartu yakien eta txarto ibil gintzesan. Da umiak pe bai, bi gaixorik, aite ill yakun, eta gero ala ekiten eurrera, ama be gaixorik, sei ume da geure mixeriek itzelak pasau gendusén, eta setara edo atara aurrera yarraitu, eta urten du.

Da gero, oin, amentxe basarrien gaus, bestiak eskondu sien, iru, abade bi etzekuak ortik dies eta oin geu amen, badabilgu al dan moduen basarrie geu biok eta amagas, eta olantxe goas aurrera.

Oin beste geusa bat esangootzuet, Mikel Zarateren sera, Lesamako abadia. Geure lagun aundi ixen san, beti egoten san amen etzera etorrite nire nebakas, eta amentxe san, oso alegria, txistosua, bromistia eta abade sintzo sintzoa. Eta berak euskeran ganian, bueno, itzalesko sera, gure amari egiteetzosan preguntek, koyuteetzosan berbak, ba euskera kontuen, gero berak eskribiduteko beran libruetan eta serian. Amentxe egoten san bera gugas baskaldute sarri, yayetan be bai sarri, bera etorten san ona, eurena an goiko, goiko fiestia san eta gurea ameko bekoa, eta amentxe egoten san kasik urte gustietan bera, gugas. Eta nire nebakas yoaten san ortik, edo mendire edo, bueno, leku askotara, oso, betik sien eurek arkalegas, eta oso sentidu gindun esta, beran eriotza.

— — — — —

Se Txorierrin emen baserriegas biximodue ataateko gatxa, oso gatxa. Se koperatibetan da, pentzue be asko kobretan daure. Asko kobreueskuan biar egin bai, baye dirurik estosu ataaten. Eta dirurik atara esian, se ingo dosu ba? Ganadue kendu, edo nora, nora edo ara biarrien yoan bear, beste nonon dirua ataaten. Se ganaduagas, ba, estau seeñik; se pentzue beiñ ogetamabost peseta kilua pagaueskuan beiekas aber se iten dosun. Egin bai, asko eukieskuan, ba ekin de biar asko einde ba dirue pitintxo bat atara iten dosu, baye gitxi. Da kanpoan biar eineskuan obrerue nonon... seuse biar eiten, an jornala ataaten dosu, eta alan libre egotzian (sic) sara; fasiltxuao dirue atara ta... estakit, pa, nik.

—Es, bapes, gastiak emen biarra in gura daure tallerretan, eta olango non edo non biar in gura daure. Se labrantzan ikusten daure euren aitte ta ama biarrian aalian dabizela, eta estaurela ikusten, estaurela ataaten dirurik. Dirua ataateko diru pitin bat ikusten es badosu posik pe estauko gastiak pe. Ta gastiak pe seeiten dau, a bai, ba dirue dauen lekure ara yuan biar.

Esnea, bai, esnea saltzen dugu koperatiba biri: Beyena eta Ona. Baina horiek dirua gitxi ematen dute. Eta dirua gitxi emankeran («-kera» atzikia darabil, baina «-t(z)ekotan» eta «-(e)z geroan» -en balioz edo), ez dago zer eginik. Pentsua hainbeste kiloa pagatuz geroan, hogeitama-bost-hogeitamasei pezeta, esnearekin ez dago zer eginik. Orain unikua, ba, etxera etortzen zaizkizu hemen etxeetatik esnearen bila, eta haiei kobratzen duzu berrogetalau pezeta; eta horiek besteak, Beyenak pagatzen du hogeitasei-zazpi pezeta eta, horrekin zer egiten duzu? Ezer bere ez, ezer bere ez. Eta hala gazteak ikusten du ez dagoela zer eginik eta unikua egiten dute inbernaderoarekin, haiexekin. Bendeja (salmenta) egiten dute, bai, eta bendejarekin, ba, Merkabilbora joan eta dirua eskurako egiten dute bai, eta harexek pitintxo bat poztu. Gazteak, oster, ez dago hemen.

Eta, labrantzako bizitza gogorra da, ahalekoa (eginahal gogorrekoa). Barkaziorik ezin duzu koju (hartu) zer behiak dauzkazun legez (dauzkazunez, bait daukazu), behiei egun guztietan, goizean eta gauean eratsi (jaitsi) egin egin behar dituzu, esnea eratsi. Esnea eratsikeran (erastekotan) apurtxo bat, orduan ibili ezean, behiak alperrik galtzen direla ziertoena, mamitis edo kojutzen dizue, bai, eta hala ez dago, zer eginik, pentsatu bere ez.

— *Gogorak, bai, ikusgarriak. Nik ez ditut ezagutu inoiz horrenbeste euri egiten. Eta euria, baina, negar egiteko modura izaten zen, euria; negar, ikusiz geroan euria egiten, negar. Ba txorroa jaustea legez (bezala) izaten zen eta; eta txorroa jaustea legez izaten zen, eta gero, gainera, dena ura eskina guztietan. Nik gure soloetan ez dut ezagutu hainbeste ura, sekula bere ez; berrogeitamalau urte ditut, eta sekula ez dut ezagutu hainbeste ura egiten.*

Hemen gu basoa zaleak gara, basora eta asko joaten gara; eta hor basoan, eskinetan, ikusten dira barrankuak, dena harria ekarrita, bideak ebagita, desastrea, akabua dago; apurtuta dana, apurtuta; harri mordo bakoitzik ekarrita, berriz, beherantz urak; zepak, arbolak, ikusgarria.

Esnea, bai, esnea saltzen dou koperatiba biri: Beyena ta Ona. Baye orrek dirue gitxi emoten daure. Ta dirue gitxi emunkean, estao seeñik. Pentzua ainbeste kilua pagauoskuan, ogetamabost-ogetamasei peseta, esneagas estao seeñik. Oiñ unikue, ba, etzera etorten yatzus emen etziatik esnian bile, da areri kobretantzu (sic) berrogetalau peseta; eta orrek besteak, Beyenak pagetan deu oetasei-saspi peseta, da, orregas seeiten dosu? Esebes, esebes. Da olan gastiak ikusten dau estauela seeñik da unikue eiten daue inbernaderuagas, arexekas. Bendejia eiten daure, bai, da bendejiagas, ba, Merkabilbaura yuan da dirue eskungo eiten daure bai, da arexek pitintxo bat postu. Gastiak, ostian, estago emen.

Ta, labrantzako bisitza gogorra da, lekoa. Bakasiñorik esin dosu koyu ze beyek dekosusen les, beyeri egun gustietan, goixian da gaubian eratzi ein biar dosus, esnia eratzi. Esnia eratzikeran apurtxo bet, orduen ibili esean, beiek arpelik galtzen diela siertuena, mamitis edo koyuten doztue, bai, eta olan estau, seeñik, pentzau bes.

—Gogorrek, bai, ikusigarriek. Nik estoas esetu iños orrenbeste euri iten. Ta eurie, baye, negar iteko modure ixete san, eurie; negar, ikusi eskeuan euria iten, negar. Ba txorrua yeustia les ixeten san da; eta txorrua yeustia les iseten san, da gero, ganera, dana ure eskine gustietan. Nik gure soloatan es dot esetu ainbeste ure (sic), sekule bes; berrogetamalau urte daukoas, da sekule estot esetu ainbeste ure iten.

Emen gu basoa saliak gara, basora ta asko yoaten gara; ta or basoan, eskinetan, ikusten daus barrankuek, dana arrie ekarrite, bidiak ebaite, desastrea, akabue dau; apurtute dana, apurtute; arri mordo baktzik ekarrita, barris, berantza urek; sepak, arbolak, ikusigarrie.

BIZKAIERA - Mundaka

Nagusia joan zen kalera serbitzen; eta nik, ipini zidaten umea jagoteko, nire, zera, anaia txikia jagoten. Eta lehen esan dudan moduan, baserrietan, han urrun egoten zen iturria, eta ur gitxirekin, eta oihalak eta, hori izaten zen, bada, bustitzen zirenean amak ipintzen zituen sutondoan eskegita (esegita) sikatzen.

Eta umearekin ipini zidan, neuk oihalean batuta neraman umea, eta bota nuen lepora, eta atzetik eskapatu zidan umeak, tunturrunbilo (koskor) handia eginda.

Bueno, esaten zidan amak, bada, «semetxoa, ia neure, zera, zeure anaia ia hil duzu, eta kontuizun («lotsaizun»en antzeko ote?) gehiago euki behar duzu hurrengoetan».

Bueno, bai. Bueno, bada, hori zen sei urtetik aurrerantz. Bada ibiltzen nintzen alogerean (soldatan, lansarian), itaurren eta. Pagatzen zuten hiru pezeta edo egun guztian, goizerik eta gauerartean, eta izaten zen eramatea etxera alogerak pozik handiena. Eta gero, aitak egiten zuen behar (lan) alogerean bere bai: baserrian eta alogerean.

Eta bideak egiten ziren orduan, eta joaten nintzen ni, bada, eramaten, eguerdia eramaten, lapikokoa eramaten, eta niretzako izaten huen, gizon tartean jatea izaten zen, iño! bada neu ere gizon eginda, oraino zazpi urte dudan legez, ez da, eta pozik joaten nintzen hara.

Gero, ba, efin, lantzean (noizean) behinetan, gauetan, joaten ginen, gero eskolara, egunez, ba, ezin beti joan, ze etxean egoten zen legez beharra, eta gero ba bedarrak eta, etxeko gauzak ebagitzen. Lurretan egiten bere bai; lurretan izaten da, aldazbeheran (aldapa behera) dau-den legez soloak, lurra beherantz etortzen da; eta gero, eraman behar-reetan, lepoz egiten zen hori, behar gogorra izaten zen, lepoz eramaten genituen gorantz zesto txikietan eta, behetik hartu eta gorantz lurrak, ze behera aldazbeheran etortzen ziren legez. Lur gozoenak etortzen ziren beherantz, eta gero goian, ba, artoak eta horiek izaten ziren txikiak eta, efin, fruta haundi barik, zer barik, eta haiek egiten genituen gero, ba, horretan esaten, lurretan egiten genuen.

BIZKAIERA - Mundaka

Nausixe jun san kalera serbitzen; da nik, ipiñi dostien umie dxagoteko, nire, sea, anixe txikixe dxagoten (?). Da len esan doten moduen, baserrixetan, an urrun eote san itxurrixen, da ur gitxias, da oixelak eta, oi ixete san ba, bustitxe sienien amak ipintte sebien sutonduen eskeitte siketuten.

Eta umiekin ipiñi dosten, neuk oixelan batute nireuen umie, eta bota neuen lepora, da atzetik eskapau dosten umiek, tunturrumbillo andixe eiñdxen.

Bueno, esaten dosten amak, ba, «semetxue, ixen neure, sea, seure anaixe ixen ill dosu, da kontuzun (?) gixau uki biosu urringotan».

Bueno, bai. Bueno, ba, ori sen sei urtetik aurrerantz. Ba ibilte nitzen alogerien, itxaurren da. Pagate suen, ba, iru peseta edo egun gustixen, goixerik eta gabarartien, da ixete san erutie etzera alogerak posaik andixena. Eta gero, aitxek eitxe eban biar alogerien be bai: baserrixen da alogorien.

Da bidek eitxen ibilten sien ordun, da juten nitzen ni, ba, eruten, eberdixe eruten, lapikokue eruten, eta nitzako ixete suan, gixon tartien xatie ixete san, iño! ba neu be gixon eindxe, oiño saspian urte daukoten les, esta, da posik jute nitzen ara.

Gero, ba, efin, lantzin beiñetan, geuetan, jute gintxisen, gero eskolas egunes, ba, esin beti xuan, se etzin eoten san les biarra, da gero ba bedarrak eta, etzeko gausek ebaten. Lurretan eitten be bai; lurretan isaten da, aldasberan dausen les soluek, lurre berantz etorten da; eta gero, erun bierrin, lepos eitten san ori, bier goorra ixete san, lepos eruten giñusen gorantz sesto txikixetan da, betik artun de gorantz lurrek, se bera aldasberan etorten sien les. Lur gosunak etorten sien berantz, da gero goixen, ba, artuek eta orrek ixete sien txikixek eta, efin, fruta aundi barik, se barik, da aitxek itxen giñusen gero, ba, orretan esaten, lurretan eitten giñun.

Eta gero, baserriko bizimodua: behiak, lar bere, ba, igual, ba, ebagitzeko bere bedar askorik ez, eta joaten ginen, ume txikiak geundela, behiak eramaten, lantzarretara (lugorri edo solo batuetara), jagoteko. Eta niretzat izaten zen bere poz handia behi azpian ipini eta errotik ahora esnea erastea, horixe izaten zen, pues bai, ahora, eta behiak zapala ona, ezta, eta gero honelako bizimodua, ahalik eta, efin, bideratzeko, irabazteko. Gero, ba, efin, sarritan haizeaz, eta gero, artoa batzen, ibiltzen ginen arto denboratan, edukitzen genuen auzoak eta geuk edukitzen genuen, zer bat, zela esaten da, artoa erretzeko, labeko sua edukitzeko, labea; eta egiten ginen (?), egurrak imintzen genituen, ze, ereinda, bertan baserrian eta hiru laurekin eginda, hori labea, eta joaten ginen, bere, horiek ebagitzen, zera, otea, izaten zen otea, labea berotzeko: labea berotu eta han egoten zen, zerak txingarrekin egiten genuen, piperrak erre eta artopilak, artopilak izaten ziren, ba ogia modura, ze ogia, hau egia santua da e! ogia hartzen genuen postre modura, domeketan eta; eta ibiltzen ginen artopilarekin, egiten genuen, eta gero, ba, izan ere bada, egurrak atera, eta gero ipintzen zen, botatzen genuen labera artoak; ze ore artoak (oretarako artoak) egiten zuen urun (irin) asko, gozoagoa, haizeaz sikatzen ziren artoak baino. Eta errotetan bere igerri egiten zuten, errotetan bere, eramaten genituenean errotetara artoak, errotalariak gura izaten zuten gure artoak, labean erreta dauden artoak. Ze bestean, euren tximiniekin eta, euren, haiek harriekin egiten zituzten ba, zelan esaten da hori, bete, harriekin egiten ziren, koskarriak (?) uruna egiteko, ez da, eta haizeaz urtekoan..., haizeaz sikatzen duten artoak, hori egiten zuten arrakala (arraila, tartea) guztia tapa, eta nahiago izaten zuten gure artoarekin egitea.

Eta hala, nik, baina hori, baserrian nik jakin nuen danontzat ez dagoela lurrik behar egiteko, ez da; eta baserrietan izaten zen, ba, seme nagusiarentzat izaten ziren, ba, nik semeetatik neu nagusiena, beste bi txikiagoak, baina nik gura izan nuen arreba lotu (gelditu) dezan (sic) aita eta ama hobeto jagoteko, eta nik esan nuen, ba, ni joango naiz nabegatzten; eta, iluntzetan, gauetan joaten nintzen apurtxo bat ikasten maisua-rengana.

Eta ikusi nuen, ba, hamalau urte t'erdirekin joan nintzen lehenengo biderrez nabegatzten, aitari eta laguntzeko; eta garbi Buenosairesera.

Eta izan nintzen, ba, «segundo kamarero», eta gustatzen zitzaidan, ze biaje osoa egin hiru hilabeteen eta soldata guztia amari emoteko, Santurtzin hogetazazpi ogerleko. Eta azkenean, orduan, neuk uste dut, ba, beharra ondo egin nuela, hain mirria (mirrina, argala) ikusi zidaten, pentsa zuten nik ez dudala balio ba, beharra egiteko, ez da. Baina argal egon arren, haunditzen zendute (?), eta sakuak eramaten nituenean, zera, probisionetako horiek, ikaratuta danak, txikiak eta neu baino basa-saku haundiagoak eramatea barrura, ze maiordomoari lagundu egin behar izaten zitzaion 'fonda de mar' (-en?) daudenak (?); eta orduan esan zion nire kapitanari, ba ea etor balitekeen beste nire anaia bere, nire lekura, ze niri esan zidaten ea gura badut pasa lehenengo kamarero;

Da gero, basarriko biximodue: beixek, lar be, ba, igual, ba, ebateko be bedar askorik es, da juten gintxisen, ume txikixek gausela, beixek eruten, lantzerretara, dxaoteko. Da nietzako ixete san, be, pos andixe bei aspixen ipiñi eta errutik aora esnie erastie, oixe ixeten san, pues bai, aora, da beixek sapala ona, esta, da gero olango biximodue, aik eta, efin, bideateko, irabasteko. Gero, ba, efin, sarritxen aixias, da gero, artue batzen, ibiltten gintzen artu denporatan, ba eukitzen giñun eusokuk eta geuk eukitzen giñun, ser bat, sela esaten da, artua erreteko, labako sue eukitxeko, labie; eta itxen gintxesen, egurrek imintten gintxusen, se, ereindxe, bertan baserrixen da iru laukin eindxe, ori labie, eta yuten gintxesen, be, orrek ebaten, sea, otie, ixete san otie, labie berotuteko: labie berotu eta an eoten san, seak txingarrakin eitten giñun, piperrak erre eta artopillek, artopillek ixete sien, ba ogi modure, se ogixe, au egixe santu da e! ogixe artute giñun postre modure, domekatan da; da ibiltte gitzen artopillas, eitxen giñun, eta gero, ba, ixan e ba, egurrak atara, eta gero ipintte san, botaten giñun labara artuek; se oreartuek eitxe eban une (=urune) asko, gosuaue, aixias sikatute sien artuek paiño. Eta errotatan be igerri itxeebien, errotatan be, eruten giñusenien errotatara artuek, errotalarixek gure ixete sebien gure artuek, laban erreta dausen artuek. Se bestien, euren tximiñikin de, euren, arek arrixekin itxen siusen ba, selan esaten da ori, betetu, arrixekin eitten sien, koskarrixek une eitteko, esta, da aixias urtekun..., aixias siketuten debien artuek, ori itte sebien arrakala gustixe tapa, da naixau ixete sebien gure artueas eitxie.

Da olan, nik, baiña ori, basarrixen nik jakiñ nauen danontzako estauela lurrik biar eitteko, esta; da basarrixetan ixete san, ba, seme nausixentzako ixete sien, ba, nik semetatik neu nausixena, beste bi txikixauek, baie nik gure ixen neuen arrebie lotu deixen aixe ta ama obeto yagoteko, ta nik esan neban, ba ni jungo nas nabegaten; da, iluntzietan, gauetan yute nitzen apurtxo bat ikesten maixueiñe.

Da ikusi neuen, ba, amalau urte terdias jun nitzen lelengo biderres nabegaten, aitxei txe lagunteko; da garbi (?) Buenosairesera.

Da ixte nitzen, ba, 'segundo kamarero', da gustate txasten, se biejeosu eiñ iru illebetien ta soldata gustixe amari emoteko, Santursen ogetasaspi ogerleko. Da askenin, orduen, neuk uste ot, ba, bierra ondo ein nabela, ain mirrixte ikusi dostien, pentza sebien nik es dotela balixo ba, bierra eitxeko, esta. Baie argal eon arren, aunditzen sendute, da sakuk erute nitxusenien, sea, probixinusteko orrek, ikaatute danak, txikixek eta neu baiño basa-saku aundixauek erutie barrure, se maiordomueri lagundu eiñ bier ixete dxakon 'fonda de mar' dagusenak; da ordun esan eutzon nee kapitxanari, ba ia etor baleiken beste nere anaixe be, nire lekure, se niri esan dostien ia gura badot pasa lelengo kamareru;

eta biok, anaia biok, joan ginen kamarote bertan, eta, biok genbiltzan lan baten, ba egin genituen hiru urte, eta zegoanean anaia, txikia izan zen legez, da gau bat han egotea izan eta, gizonen eta andren eta berbak eta, egun baten esan nion nire anaiari ogalean (sukaldean): «Zu, umea zara eta joan zaitetz hortik, zuk halako gauzak ezin duzu entzun eta»; eta esaten zidan: «E, ni zure beste gizona naiz». E, hamalau urterekin.

Bueno, eta, biok, ibili ginen legez han, gero ba, honantzean, Buenos Airesetik hona gentozela, zazpi barku urten genuen kargatuak gariarekin eta artoarekin, San Nikolasen, Rio de Platan, goian. Eta heldu ginen Roterdanera lau: hiru hondatu ziren, gure, eta gu salbatu ginen milagroz. Oraindino bizi da kapitana, Luzarraga. Zuk ezagutzen duzu, eta geuk bere pentsatu genuen geu bere hondora goazela (sic), ze barkuan hamazazpi txapa egin zen putxitu (hanpatu, hazi); ze ura sartuz gero, granoarekin datorrena, gariarekin datorrena, gero egiten da zabaldu; eta horren zera eduki genuen, ikara barkuak, ba eusteko, ez da. Eta egin genuen behar (lan) danok, hasi kapitanetik eta azkenerartean itxasora botatzen, danak, granoak, eta, aile..., heldu ginenean Roterdanera, oraindino honetan, egongo zen ia metro erdiko garia hazita behean, bai.

Eta pentsatu genuen, bueno hemendik salbatzen bagara, ba, gehiago ez dut urtengo itxasora. Eta, hirugarren egunean, Ekuadorrera ailegatu, eta dana ahazten zen.

da bixok, anaixe bixok, jun gintxisen kamareten bertan, da, bixok gabixen lan baten, ba iñ giñusen iru urte, ta egoenien anaixe, txikixe isen san les, ba gau bat an egotie isan da, gixonan da andan da berbak eta, egun baten esanutzon nie anaixeri ogalien: «Su, umie saa ta jun saites ortik, suk, olanko gausak esin su entzun de»; da esateuste: «E, ni sure beste gixona nai». E, amalau urteas.

Bueno, da, bixok, ibil gintzen les an, gero ba, onantzien, Buosairese-tik ona gatosela, saspi barku urten giñun kargatak garixegas da artuegas, Sanikolasen, Rio de Platan, goixen. Da eldu gintzesen Roterdanera lau: iru ondatu sien, gure, da gu salba gitzen milagros. Oindiño bisi da kapitxana, Lusarraga. Suk esauten dosu, eta geu pe pentza giñun geu be ondora gusela, se barkuen amasaspi txapa in sen putxitxu; se ure sartu eskitiño, granuas datorrena, garixas datorrena, gero itxen da sabaldu; da orren sea euki giñun, ikarie barkuek, ba eusteko, esta. Da ein giñusen bier danok, asi kapitxanetik eta askeneartien itxasora botaten, danak, granuek, da, alle..., eldu gintxesenien Roterdanera, oindiño ontan, eongo san ixte metro erdiko garixe asitxe beien, bai.

Da pentzau giñun, bueno ametik salbaten bagaries, ba, geixau es tot urtengo itxasora. Da, irugarren egunien, Ekuadorrera allega, da dana astute san.

BIZKAIERA - Gorozika

Bizkargin, maiatzean hiruan, ba jaiak, ezta, hirua eta gero hurrengo domeka bere izaten dira. Baina maiatzean hirukoa izaten da, joaten dira zaharrak, zaharrak eta gaztetxoak, eta hala, umeak eta hala. Gazteagoak joaten dira hurrengo domekan. Orain ja, danetakoak bere hurrengo domekan joaten dira erromeriara. Erromeria egiten da, eta orduan joaten ginen ba eguerdirako, bazkariarekin edo arratsaldean, ba guk hurrean daukagun legez hori mendiori, hurrean dagoen legez guretik, ba halaxe joaten ginen. Eta esan dudana lehen, letainekin (prozesio moduan letaniak abestuz) e, ba abadeak, urten genuenok, hasten zen kanpaia jotzen goizean, goizean hor zortziterdiak edo bederatzia inguruan hasten zen abadea kanpaia, letainak jotzen.

Danak batzen ginen, gura izaten zuenak joan, geure otzaratxoa, maletatxoa, zorrotxoarekin hartu eta bazkariarekin, eta urtetzen zuen abadeak, eta sakristaua eta horiek danak, eta han igotzen genuen danok mendira eguna pasatzen. Euria egiten bazuen, sarritan gelditu egin behar.

Euria egiten zuenean, begiratu, han gure etxearen atzean, nik eztakit konturatu bazara, aiuntamentua zaharra izaten zen; eta han egon zen, han, ba, aiuntamentua, ezta, eta egiten zuten zahagia (?), zahagia hantxe ipini e. Eta bertan emoten zuten, eta gero leku handia egon zen legez, ipini mahaiak eta joaten ginen kanposanturaino letainarekin, kanposantuan errezzatu eta egin errezu guztiak eta atzera etorri, berandutxo urten bere egiten zen, eta atzera etorri, eta gero hantxe bazkaria, umeak eta zaharrak. Zaharrak, eta sarritan umeak bere bete-bete-bete... eginda, e, eta hantxe.

Hori izaten zen, ba, maiatzean hiruan, eta gero hurrengo domekan, joaten ziren, orduan ja, gazteria; gazteria, ba, goizerik eta eguerdirako edo hala, baina askok, beti eramaten zuten, ba, erromeria eta soinua, eta joaten zen asko, jende asko, eta gure herriko abadeak ez zuen gura izaten erromeriarik egiterik, ze agertzen ziren hankak, ze han asko hil ziren, afusilatuta, gerra denporan eta asko hil ziren, ezta, eta gudari asko dagoela han hilda, eta egia da, joan eta estropazu batekin zapata bat igual, bota bat agertzen zen zerean, eta hark abadeak, ba, zaharra izaten zen, ze ez zuen gura izaten, e, halakorik egiterik, erromeriarik eta

BIZKAIERA - Gorozika

Bixkergin, maiatzin iruen, ba jaixek, esta, irue da gero urrengo domekie be ixeten dies. Baia maiatzien irukua ixeten da, juaten dies sarrak, sarrak eta gastetxuek, eta olan, umiek eta olan. Gastiauek juaten dies urrengo domekaran. Oiñ ya, danetakuek pe urrengo domekan juaten dies erromeixera. Erromeixe eitten da, da orduen juaten gintxesan ba eberdireko, baskaixegas edo atzaldien, ba guk urrien daukun les ori mendixori, urrien dauen les guretik, ba alantxe juate giñesan. Da esan dotena len, letaiñegas e, ba abadiiek, urten gendunok, aste san kanpaie joten goxien, goxien or sortziterdixek edo bederatziek ingeruen aste san abadie kanpaie, letañak joten.

Danak batzen gintxesan, gure ixete ebanak joan, geure otzaratxue, maletatxue, sorrotxuekin artun de baskaixegas, da urtete eban abadiiek, da sakristaue da orrek danak, da an igoten gendun danok mendire egune pasetan. Eurixe eitten baeban, sarritten gelditu iñ biar.

Eurixe eitte ebanien, beittu, an gure etzien atzien, nik estakit konturatu basara, aiuntamentue, sarra isaten san; ta an egon san, an, ba, aiuntamentue, esta, da eitte uen saragixe (?), saragixe antxe ipiñi e. Da, bertan emote uen, da gero leku andixe egon san les, ipiñi maixek da juaten gintxesan kanposanturaiño letaiñegas, kanposantuen erresau ta eiñ erresu gustixek ta atzera etorri, berandutxo urten be eitten san, da atzera etorri, da gero aintxe baskaixe, umiek eta sarrak. Sarrak, eta sarritten umiek be, bete-bete-bete... eindde, e, da antxe.

Ori ixete san, ba, maiatzin iruen, da gero urrungo domekan, juate sien, orduen ya, gasterixe; gasterixe, ba, goixerik da elberdireko edo olan, baia askoak, beti eroate seuen, ba, erromerixe ta soñue, ta juate san asko, jente asko, da gure erriko abadiiek eseban gue ixeten erromeririk eitterik, se agertze sien ankak, se an asko il sien, afusilaute, gerra denporan da asko il sien, esta, da gudari asko dauela an ildde, da egixe da, juan da estropasu bategas sapata bat igual, bota bat agertzen san serien, da arek abadiiek, ba, sarra ixete san, se eseben gure ixeten, e, olakorik eitterik, erromeririk eta

halakorik, baina jendeak ez zion ba jaramonik egiten, jaramonik egin ez, badakizu, gazteria, batzuk, igual senideren batzuk edukiko zituzten, baina ez zekiten legez nortzuk, eta egon ziren hala trintxera handiak eginda, trintxera handiak, eta han bere agertzen ziren hala hilda eta, batean beso bat, edo bestean hanka zati bat, eta hala askoak (sic).

Ha izan zen Bizkargi, baina esaten genuen kanposantu bat, kanposantu bat izan zen, ze zen, dinot, eta egon ziren urte baten bere, begiratu, han gure etxearen aurrean, beste, hala, etxe bat, herrian egon zirenik propietariorik handienak, Gorozikan. Neskazaharrak izan zirek haiek, neskazaharrak, solterak. Haiei bere gustatzen zitzaien egotea, ekartzen zuten, ekartzen zuten moxkor bakoitza, nire osabak taberna eduki zuen alboan, eta zer egiten zuen, hartu eta taberna, tabernak ipintzen ziren, ba, txosnak, han jendeek ipintzen zituzten, ba ateratzeko diru apurtxo bat, eta sarritan joaten zen nire osaba, ba, burdiarekin, baten baino sarriago ekarri du burdian hartuta e, haiek neskak, haiek neskazaharrak, moxkor itzalarekin.

Asike, badinot, horiek zahagiak izaten ziren moxkorra emoteko jendeari, ze badakizu zer pasatzen zen. Gerra ostetxoan, eta ez zegoen dirurik, eta ez zegoen legez dirurik, ba jendeak eta etxeetan bere, hala, e, baten batek bai ardo apurtxo bat, baina hala ardorik eta hala edatekorik, aitarentzako, ardoa aitarentzako, ze beharra egin behar izaten zuen, eta aitarentzako. Osterantzean ardorik eta hala inork bere ezin izaten zuen edan.

Eta igotzen zutenean, eta gero bajatzekoan, moxkorrak, eta haiek neskazaharrak, nik, e, gogoratzen naiz, ai zelako, zelako moxkorrekin etortzen ziren halaxe sarritan, edo edozeinek ekarri bere egin behar, zein edo zer, bai, eta moxkorrekin, zelebrea, zelebrea.

Gero beste mendi bat bere badago, Oixa esaten ziotena, baina ni inoiz ez naiz joan hara. Joaten ziren gure herritik asko, baina dago, urrin dagoen legez, ni ez naiz joan inoiz hara, e, Oixera. Baina hona, Bizkargira txiki-txiki-txikitxo nintzenetik beti-beti-beti...

Gizona bere handixe, handixik etorri nintzenean topatu nuen, oseake, nobioa orduxerik egunetik hona izan zen, ze auzoak izan gara beti-beti-beti, baina orduantxe lagundu zidan, eta orduantxe hasita gehiago, bai.

olakorik, baie jentiek eseutzen ba jamonik eitten, jamonik eiñ es, badakixu, gastierie, batzuk, igual seniden batzuk euko sittuesan, baie esekixien les nortzuk, da egon sien ola trintxera andixek eindde, trintxera andixek, da an be agertzen sien olan illdde ta, batien beso bat, do bestien anka sati bet, da olan askoak.

A ixen san Bixkergi, baie esaten gendun kanposantu bet, kanposantu bet ixen san, se san, diñot, da egon sien urte baten be, beittu, an gure etzin aurrien, beste, olan, etxe bat, errixen egon sienik propietaxorik andixenak, Gorosiken. Neskasarrak ixen sien aek, neskasarrak, solterak. Areri be gustan xakien egotie, ekarteta uen, ekarte zeuen moxkor bakotxik, nire osabiek tabernia euki eban alboan, da ser eitte eban, artu da tabernie, tabernak ipintte sien, ba, txosnak, an jentiek ipintte situsen, ba tateko diru apurtxo bet, da sarritten juate san nire osabie, ba, burdixegas, baten baiño sarrixau ekarri deu burdixen artunde e, arek neskak, arek neskasarrak, moxkor itzelakin.

Asike, badiñot, orrek saragixek ixete sien moxkorra emoteko jentieri, se badakixu ser paseta san. Gerra ostetxuen, da es segoan dirurik, da es segoan les dirurik, ba jentiek da etzietan be, olan, e, baten batek bai ardau apurtxo bet, baia olan ardaurik eta olan edatekorik, aittentzako, ardaua aittentzako, se bierra eiñ bier ixete eban, da aittentzako. Ostan-tziñ ardaurik ta olan iñok pe ezin ixete eban edan.

Da igote seuenien, da gero bajatekun, moxkorrak, da arek neskasarrak, nik, e, gogoratzen nas, ai selako, selako moxkorraekin etorte sien olantxe sarritten, edo edoseiñek ekarri be eiñ bier, seiñ edo ser, bai, da moxkorragas, selebrie, selebrie.

Gero beste mendi bet be badau, Oixe esate eutziena baine ni iñox enas jua ara. Juate sien gure erritik asko, baia dau urriñ dauen les, ni enas jua iños ara, e, Oixera. Baia ona, Bixkargire txiki-txiki-txikitxue nintzenetik beti-beti-beti...

Gixona be andixi, andixik etorri nintxenien topau neben, oseake, nobixua ordukerik egunetik ona ixen san, se eusuak ixen gara beti-beti-beti, baia orduntxe lagundu usten, da orduntxe asitte geixau, bai.

GIPUZKERA - Astigarraga

Ni eskolara hasi nintzen sei urterekin, errepublika zegoela, eta hasi zen eta maestra bat egoten zen. Asko ez genuen ikasten, baina kontu egin egiten zigun eta leitzen pixka bat, aeiou eta abeze eta gero dotrina; eta gero han pixka bat jartzen ginenean, gora, gora bialtzen zigun (sic), beste planta goian zegoen maisuarekin, eta hara, eta zazpi urterekin gora igo nintzen, eta han eskolan sartzen ginen eta aurrera egiten genuen estudiantu hamarrak alderarte, eta gero maisuak galdetu egiten zuen, zer egiten genuen; eta gero hamaiketan errekreora ateratzen ginen eta errekreoan ordu erdi bat han ibiltzen ginen; eta han berriz ibiltzen ginen futbolearen edo harrapatzen edo pelotan, hantxe jostatzen ginen eta hamaika t'erdietan osterara eskolara, gora igotzen ginen, eta gero han izaten zen jeneralean dotrina edo, ordu erdi bat hamabiak arte.

Hamabitan ateratzen ginen eta gero etxera bazkaltzera joaten ginen, eta gero, bazkalduta, ordubietan sartzen ginen, ordubietan joaten ginen, eta maisuarekin berarekin aritzen zen, tableroan eskribitzen zuen edo, restar edo sumar edo, hura ari zen eta gero han aritzen ginen, eta lauterdietan kanpo, etxera bidaltzen zigun (sic).

Gero handik, amak esaten zigun etxetik (?) joateko, azkar etortzeko, baratzean lagundu egin behar zela eta; gogo haundiarekin ez ginen joaten, baina gehienez joaten ginen; batzutan batere joan gabe geratzen ginen, bai, pelotan edo entretenitu edo gogorik ez edo... Bai, eta baratzean joaten ginen eta han aritzen ginen, patata egin edo beti, patatan, garai honetan egiten ziren espinaka edo azelga eta aldatzen genituen garai honetan, eta errepoiloa ere bai, eta gero artoak eta garai honetako bilduak izaten ziren eta, artoak jo eta, gero primaberarako, osterara, atxurtzen, lurrari buelta ematen aritzen ginen, eta etxera joaten ginen eta gero, piska bat orduan, garai hartan eta berriketan egoten ginen edo errosarioa esan edo, amak errosarioa esaten eta, aita, zortziak aldean edo illunbatzean, negu aldiaren behintzat, ohera. Eta hurrengo urtean, hurrengo egunean, osterara, horixe, eskolara eta... horixe.

GIPUZKERA - Astigarraga

Ni eskolaa asi nintzan sei urtekin, republika zeola, da asi zan da maestra at eoten zan. Asko ez kenun ikasten, baño kontu eiñ eiten zigun da leetzen pixkaat, aeiou ta abeze ta geo dotriña; ta geo an pixkat jartzen giñanian, gora, gora bialtzen zigun, beste planta goyan zeon maisuakin, ta ara, ta zazpi urtekin gora iyo nitzan, da an eskolan sartzen giñen da aurrena eitten giñun estudiatu amarrakalderarte, ta geo maisuak galdetu eitten zun, ze eitte genun; ta geo amaiketan errekreoa ateatzen giñan ta errekreoan orduerdi bat an ibiltzen giñan; ta an berriz ibiltzen giñan futbolian eo arrapatzen eo pelotan, eo antxe jostatzen giñan ta amaika-terdian ostea eskolaa, goa iyotzen giñan, ta geo a izate zan jeneralean dotriña eo, ordu erdi bat amabittarte.

Amabittan ateatzen giñan ta geo etxea bazkaietea jute giñan, ta geo, bazkalduta, ordubitan sartzen giñean, ordubitan jute giña, da maisuakin beakin aitzen zan, tableoan eskriitzen zun eo, restar eo sumar eo, ua aizen ta geo an aitzen giñan, da lauterditan kanpo, etxea bialtzen zigun.

Geo andikea, amak esaten zigun etxetik juteko, azkar etortzeko, baatzean laundu ein biar zela ta: gogo aundiakin ez kiñan juten, baño geienian juten giñan; batzutan batee jun gabe geatzen giñan, bai, pelotan eo entretenitu eo gogoik ez eo... Bai, ta baatzea jute giñan da an aitzen giñan, patata eiñ eo beti, patatan, garaiyontan eitten zian espinaka eo azelga ta aldatze genittun garai ontan, da errepollua re bai, da geo artuk eta garai ontako bilduk izaten zian da, artuak jo ta, geo primeerako, ostea, atxurtzen, lurrai buelta ematen aitze giñan, da etxea jute giñan da geo, pixkaat ordun, garai artan eta berriketan eoten giñan eo erresaioa esan eo, amak erresaioa esaten da, aita, zortzikaldian eo illunbatzean, negu aldian beintzat, oyea. Ta urrengo urtean, urrengo egunean, ostea, oixe, eskolaa da... oixe.

Gerra denboran, berriz, horixe, gerra denboran ezer ez zen eta, estraperloan ibiltzen ziren. Karnizerira ere joaten ginen haragi pixka bat, kiloren bat edo ematen zuten, baina goizean igual joaten ginen seietarako edo, eta ordubietarako igual, eta han egoten ginen kolan, kola haundi xamarrak eta gero karnizeroa bederatziak eta han egoten ginen (?), eta tokea toko (tokatzen zitzaionari tokatzen zitzaiola) ematen zuen, kilo bat haragi ematen zuen, eta etxera joaten ginen. Eta etxera joaten ginen eta askotan eskolara joaterik ez orduan ere, berandu edo, hamarrak edo hamabiak igual, jende asko izaten zen eta; goiz xamar joanez gero ateratzen zen lehenago, konparazio batera, ordu bietan edo hiruetan, baino gu orduan mutil gazteak izan eta gurasoei ere pena ematen zigun (sic), eta askotan beranduxeago joaten ginen, lauak edo bostak, eta gero han egon behar, jende asko egoten zen eta, hamarrak edo hamabiak edo segun, eta haragia kilo bat bakarra ematen zuten.

Gero, ostera, arratsaldean eskolara. Gero, lanean hamabi urte nituela, lan, lan tokia batek eman zidan eta gurasoei eta esan zien eta, aber lanera joango al nintzen eta, beno, eskola utzi nuen eta, nola lanean hasi nintzen eta, Amaran han aritu nintzen zumea aldatzen. Han hiru hilabete pasa egin nituen. Sartu genituenean, eta gero, handik atera nintzen eta, karrozero batena, esan zidan aber laguntzen edo joango al nintzen, bastante pagatuko zidala eta mutil bat hartuko lukeela eta, han aritzen ginen kontuz egurra txikitzen (zaticatzen), egurra txikitzen aritzen ginen, zerako, surtarako (sutarako), garai hartan ikatzik eza, gutxi, ez zuten ekartzen, gerra denbora zegoen eta, egurra txikitzen aritzen ginen eta gero, egurra kamioia hartu eta Donostiara eramaten genituen eta gero handik zestoz kargatu kamioia eta karbonerian utzi.

Eta gero, honelaxe pasatu genituen hiru bat urte edo, egurra txikitu, eta gero handik, berriz, beste batek esan zidan gehiago pagatu edo egingo zidala eta, arotzerian edo nahi al nuen ikasi edo, lebantean eta bazeukala eta, eramango ninduela eta, arotzean aritu ginen, arotzean, lebantea. Lebantea orduan Donostian zen eta, lebantea altxa eta, lehen lau pisokoa zen eta piso pare bat egiten ziren; sei, sei orduan ametitzen zen. Orain bezala ormigoiarekin ez, egurrez egiten zen orduan lebantea, ta blokeekin fatxada; bai, eta orduan hasi ziren pisoka saltzen etxeak ere, orduan hasi ziren, hark hau egiten zuen garaian, orduan hasi ziren, pisoak saldu egiten zituen gainera.

Gerra denboan, berriz, oixe, gerra denboan ezer etzan da, estraperlun ibiltzen zian. Karnizeiya re jute giñan arai pixkat, kilon bat eo ematen zuen, baño goizian igual juten giñan seitako eo, ta ordubietako igual, ta an eoten giñan kolan, kola aundi xamarrek ta geo karnizerua bederatziak eta an eoten giñan (?), da tokiya toko ematen zun, kilo bat arai emate zun, ta etxea jute giñan. Da etxea jute giñan da askotan eskolaa juteik ez ordun ere, beandu eo, amarrak eo amaikak igual, jende asko izaten zan da; goiz xamar jun ezkerro ateatzen zan lenago, konparaziyo batea, ordubitan edo irutan, baño gu ordun mutill gazteak izen da gurasoei re pena ematen zigun, da askotan beranduxiago juten giñan, lauak edo bostak, eta geo an egon biar, jende asko eoten zan da, amarrak eo amaiak eo segun, da araiya kilo bat bakarra emate zuen.

Geo, ostea, atzaldian eskola. Geo, lanin amabi urte nittula, lan, lantokiya batek eman zian da gurasoei ta esan zioten ta, aber lanea jungo al nintzan da, beno, eskola utzi nun da, nola lanian asi nintzen da, Amaran an aittu nintzan zumiya aldatzen. An iru illebeta pasa iñ nittun. Sartu geñittunian, da geo, andika atea nintzen da, karrozero batena, esan zian aber laguntzen eo jungo al nintzan, bastante paatuko ziala ta mutil bat artuko lukela ta, an aitzen giñean kontuz eurra txikitzen, eurra txikitzen aitzen giñan, zeako, suertako, garai yartan iketzik eza, gutxi, etzuen ekartzen, gerra denboa zeon da, egurra txikitzen aitzein da geo egurra kamiona artu ta Donostia eamaten genittun ta geo andika zestoz kargatu kamioya da karboneiyan utzi.

Ta geo, olaxe pasau giñttun iru bat urte eo, egurra txikitu, ta geo andika, berriz, beste batek esan zian geixao paatu eo, eingo ziala ta, aotzeiyan eo nai al nun ikasi eo, lebantian da bazekala ta, eamango niñula ta, arotzen aittu giñan, arotzen, lebantia. Lebantia ordun Donostiyan zen da, lebantiya altxa ta, len lau pisokua zen da piso pare at eitten zian; sei, sei ordun ametitzen zen. Oain bezala ormigoia ez, egurrez eitten zan ordun lebantia, ta blokiakin fatxada; bai, ta ordun asi zian pisuka saltzen etxiak ee, ordun asi zian, arek au eiten zun garaian, ordun asi zian, pisoak saldu eitten zitun gañera.

GIPUZKERA - Azpeitia

Adierazi nahi genuke, ba, hemengo jaialdiak urtearen barruan nola-koak izaten diren. Hasiera emango diogu San Sebastian bezperari.

Oso egoera ederra egoten da soziedade guztietan, gizon guztiak alkartzen dira eta beren apariak egiten dituzte eta egundoko umore onarekin ja tanborradaren hasierarako prestatzen dira. Kalera ertetzen dute (ateratzen dira) talde asko, hamahiru edo hamalau talde ertetzen dute eta herri guztia beraien zai egoten dira. Herri guztiari kalejira ematen diote eta, gero, beren ikurrinekin eta azaltzen dira danak, beren musika ederrarekin, oso giro ederra prestatzen da. Gero, hurrengo goizean ba, umore onarekin jende guztia prestatzen da eta, meza nagusi ederra izaten dugu, gero ba, jendea txikiteora ertetzen du ederki preparatuta, eta gero zezena. Azpeitian sokako zezena ez dadila faltatu porke bestela ez litzateke festarik izango. Gero, eguerdian ahal dugun bazkari-rik ederrena egin etxeetan, eta arratsaldean, berriz ere, sokako zezena izaten dugu. Gero, umeen tanborrada ere izaten da oso polita, ume guztia, herriko ume guztiek parte hartzen dute: batzuek inudeak izaten dira gero karroza ederra ateratzen dugu, herriko emakumerik politena azaltzen da, beren ustetan ateratzen dute, eta kritika batzu izaten dira baina oso ederra izaten da. Gero, hori pasatzen den ondoren, izaten dugu, ba karnabaletako jaiak. Hori beste batek esango du.

*Bueno, esto, karnabaletako jaiak izaten dira: jai karnabala, astelehe-
na eta asteartea; jaiak izaten dira, tailerrak eta danak festa handiak izaten
dira, hiru eguneko festak, eskolak ez dira izaten, eta hemen festarik
haundiena izaten da, zezena, sokamuturreko zezena. Hemen jende asko
izaten da. Gero, izaten dira astelehen iluntzean ba, disfrazak, jende askok
parte hartzen dute herri guztiak esate batera, eta oso, osea, konkurtso
izaten da, bere premioak eta dana eta oso ederra, oso ambiente ederreko
oso giro ederra egoten da. Eta, baita, gero ere, astelehen eguerdian
umeen disfrazak, desfile bat egoten da oso polita hori ere, bere premioe-
kin haiek ere bai. Gero, izaten da astearte karnabala, ja atzenengo eguna
sokamuturra izaten da goizean zazpiretan, arratsaldean ere bai, oso
ambiente ederreko giroa egoten da.*

GIPUZKERA - Azpeitia

Adierazi nai genduke ba, amengo jayaldiyek urtien barruan nolakuak izaten diren. Asiera emango diogu Sansebastian bezperai.

Oso egoera earra eote a soziedade guztiyetan, gizon guztiyek alkar-tzen dira eta bean apaiak eiten dittue eta eundoko umore onakin ya tanborradan asierako prestatzen dire. Kalea ertetzen dute talde asko, amairu eo amalau talde ertetzen dute ta erri guztiye beraen zai eoteye. Erri guztiyei kalejira ematen diyote ta, geo, bean ikurriñekin da azaltzen dire danak, bean musika ederrakin, oso giro ederra prestatzen da. Gero, urrengo goiziyen ba, umore onakin, jende guztiye prestatzen da ta, meza nausi ederra izeten deu, geo ba, jendie txikiteua ertetze u earki preparau-te, ta geo zezena. Azpeitiyen sokako zezena ez dedilla faltatu porke bestela ez litzake festarik izango. Geo, eguardiyen al degun bazkairik ederrenean ein etxiitan, ta arratsaldian, berriz ere, sokako zezena izete deu. Geo, umien tanborrada e izeten da oso politte, ume guztiye, erriko ume guztiyek parte artzen dute: batzuek iñudek izeten die geo karroza edarra ateatzen deu, erriko emakumeik pollitena azaltzen da, bean ustetan ateatzebe, ta kritika batzuk izaten dira baña oso ederra izaten da. Geo, ori pasatzen dan ondoren, izete deu, ba karnabaletako jaiek. Ori beste batek esango u.

Bueno, esto, karnabaletako jaiek izete iez: jai karnabala, astelena ta asteartie; jaiek izete iez, tallerrak eta danak festa andiyek izete iez, iru eguneko festak, eskolak ez diez izeten, eta amen festik aundiyena izete a, zezena, sokamuturreko zezena. Amen jende asko izete a. Geo, izete iez astelen illuntzien ba, disfrazak, e jende askok parte artzen dute erri guztiyek esatebatera, eta oso, osea, konkurso izete a, bere premiyuk eta dana eta oso earra, oso ambiente edarreko oso giro edarra eote a. Eta, baite, gero re, astelen eguerdiyen umiyen disfraz, desfile bat eote a oso politte ori re, bere premiyukin aiek e bai. Geo, izete a astearte karnabala, ya atzenengo egune sokamuturre izete a goizien zazpiretan, atzaldin e bai, oso ambiente edarreko girua eote a.

Eta hurrenengo izango dira, gero, zera, hurrengo festa oso inportantea hemen San Inazio eguna, eta hau, ba, beste zera batek esateko, segituko.

Ba, San Inazioak dira, bezperatik etxafleroekin hasten dira, eta duntzinero ta musika jotzaile guztiekin desfile bat izaten da eguerdian eta jende asko biltzen da plazan, etxafleroei zera haundia ematen zaio, inportantzia haundia ematen zaio hamabitako horri, eta gero eguerdian Loiolara joaten dira, ez, lehenengo joaten dira parrokiara bezperetara buruhaundiak eta danak hartuta eta korporazioa aiuntamientukoa, eta handik arratsaldean salbera joaten dira Loiolara. Eta, gero, gauean ba nahiko erromeri eta festa egoten da. Eta gero, zezenak izaten dira, korrida bat izaten da, bi nobillada edo, eta gero beste umeen jaialdi bat, torero bonbero, edo, enfin, ertetzen duena. Eta, San Inazio bigarreanean etortzen da diputazioa Loiolara eta gure lehendakaria ere etortzen zaigu, horixe, eta oso jaialdi ederra izaten da, porke, diputazioa joaten da Loiolara beren meza nagusi ederrarekin lehendakariarekin eta gero bueltan lehengo lege zaharreko prozesioa izaten da Loiolatik danak Azpeitiko parrokira etortzen dira, oso ederra izaten da hori. Eta gero, enparantza nagusian aureskua ateratzen da, sokakoa, beren desapioak eta konpleto, de esto.

Zeratik, egoten da korporazioa aiuntamentutako balkoera urtetzen du, eta hori bigarrenengo egunean urtero, ia lehengo ohitura zaharra, ohitura zaharra da, oso ederra izaten da.

Eta gero, urte barruan, berriz, pues holaxe izaten ditugu asko. Batean kale bateko jaia dela eta bestean bestekoa dela eta, nik, zer esango dizut ba. Azpeitian oso jende alaia dago. Geure akatsak eta izaten ditugu baina oso jende alaia gaude. O, azkoitiarrekin ere burruka batzuk eta ibiltzen ditugu, haiek gehiago direla eta gu gehiago garela, baino gu geurearekin geldituko gara eta axkoitiarrei berea lagako (utziko) diegu.

«Itsasi» talde bat ere oso ederra daukagula bere dantzariekin, bere tunturroekin oso jai ederrak prestatzen dituzte, herri askotara joaten dira eta gero antzerki talde bat ere badaukagu. Orain, oso ederki neure ustez neuk hartzen dut parte eta, nik uste nahiko lan egiten dugula. Herriz herri ere hortxe ibili gara Eusko Jaurlaritzak aginduta, eta baita diputazioak ere. Eta bajiña (makina) bat herri aldrebesetara ere joan gara. Bajina bat hotz ari gara pasatzen, baina egin egin behar dugu eta egin egingo dugu; Euskalerriatik egin behar baldin bada egingo dugu lana.

Eta urrenengo izengo iez, gero, zea, urrengo festa oso inportantie amen Saninaziyo egune, ta au, ba, beste zea batek esatuko segiuko.

Ba, saninaziyeuk die, bezperatiken etxafleruekin aste ie, eta duntziñero ta musike jotzalle guztiyekin desfile bat izete a eguardiyen ta jende asko biltze a plazan, etxafleruei zea aundiye emate zako, inportantzi aundiye emate zako amabitako orri, eta gero eguardiyen Loyolaa jute ie, ez, lenengo jute ie parrokire bezperataa buruaundiyeuk ta danak artute eta korporaziue ayuntamentukoe, ta andik arratzaldien salbea jute ie Loyolaa. Eta, gero, gabien ba naiko erromei ta festa eote a. Ta geo, zezenak izete ie, korrida bat izete a, bi nobillada o, ta gero beste umien jaialdi bet, torero bonbero, o, enfin, ertetze une. Eta, saninazixo bigarrenien etortze a diputaziyue Loyolaa ta gue lendakaie e etortzen zaku, oixe, ta oso jaialdi ederra izaten da, porke, diputaziyue jute a Loyolaa bean meza nagusi ederrakin lendakayekin eta geo bueltan lengo lege zarreko prozesiu izete a Loyolatan danak Azpeitiko parrokira etortze ie, oso edarra izete a oi. Ta gero, enparantza nagusiyen auresku etatze a, sokakue, bean desapiyuk eta konpleto, de esto.

Zeatik, eote a korporaziue ayuntamentutako balkoea urtetze u, eta ori bigarrenengo egunien urtero, ya lengo oiture zarra, oiture zarra a, oso ederra izete a.

Ta geo, urte barruen, berriz, pues olaxe izete itugu asko. Batien kale bateko jaie dala ta bestien bestekue dala ta, ni, ze esango izut pa. Azpeitin oso jende alaye dao. Geure akatsak eta izate itugu baño oso jende alaye gaure. O, axkoittiarrekin e burruka batzuk eta ibiltze itugu, aiek geyo diela eta gu geyo geala, baño gu geurikin gelduko gara ta axkoittiarrai beana laako iegu.

Itxasi talde bat e oso earra daukagule bere dantzayekin, bere tunturrukin oso jai ederra prestatze itue, erri askota jute ie eta geo antzerki talde bat e badaukeu. Oin, oso eerki neure ustez neuk artze et parte ta, nik uste naiko lan eite deule. Erriz erri re ortxe ibilli gea Eusko Jaurlaritzak agindute, eta baite diputaziyuek e. Eta bajiña bat erri aldrebeseta re jun gea. Bajiña bat otz ai gea pasatzen, baño eiñ in bear deu ta eiñ ingo deu; Euskalerriatiken iñ bear balin baa ingo deu lana.

EUSKALKIAK IRAKURTZEKO ZENBAIT TESTU

Helburuetan ezarri den bezala, euskalkiak entzutez ezezik irakurriz ere ulertu egin behar dira. Horretarako balio dute neurri batean grabaketen testu idatziek ere, baina hizkuntza mintzatutik jasoak direnez, beti txiro xamar gertatzen dira benetako testu idatzien parean. Testu idatzia eta grabaketak, biak dira beharrezkoak, elkar laguntzeko eta elkarren hutsu-neak bete ahal izateko.

Hemen ipini dugun bibliografia horixe baino ez da: euskalkietan idatzitako eta dialektologiazko irizpidez jaso den euskal literatura.

Liburuak euskalkiz euskalki sailkatu ditugu, noski, baina ez dira euskalki denak hartzen, lan honetan aipatzen diren sei nagusiak baizik. Sailkapena kasu batzutan gauza bihurria gertatzen da, eta horretarako irizpide linguistikoak murriz gertatu zaizkigunetan geografikoak ere kontutan hartu ditugu. Ez gara hasi, bestalde, azpi-*auskalkiak* eta *aldakiak* bereizten.

Halaz ere, beti gelditzen da erabateko erabakirik onartzen ez duen kasuren bat. Esaterako, Baztango hizkelkia beti izan da eztabaida-bide euskalkiaren aldetik, goi-*nafarrera* eta lapurteraren artean erdi koloka gelditzen bait da. Guk hemen liburuak goi-*nafarrerakoekin* sartu ditugu, eta, nolana ere, uste dugu jarrera defendigarria dela, jarrera bezala ez baina irtenbide bezala egin badugu ere.

Liburuek berek ere sor ditzakete zalantzak. Salaverriaren «Neronek tirako nizkin» eleberriak goi-*nafarrerako* eta gipuzkerako ezaugarriak ditu. Bat aukeratu behar, eta gipuzkeraren alde jokatu dugu, kontutan izanez, noski, horretara bultzatzen gintuzten arrazoiak.

Testu denak ere ez dira maila berekoak. N. Holmer, P. Pujana, N. Diaye-renak, esaterako, zehatzagoak eta fidagarriagoak dira, eta horregegatik, agian, testu laburrak dira. Eleberriek, antzerkiek eta testu luzeek ziurtasun hori nekezago lortzen dute, baina euskalkiaren ezaugarri nagusiak bereizteko eta euskalkia ezagutzeko balio dute, eta, bidenabar, baita euskal literatura ezagutzeko ere.

XX. mendeko lanak besterik ez genituen eman nahi, baina euskalkiaren baten bibliografia hain urria zenez, joan den mendekoren bat ere aipatu behar izan dugu, esaterako Elissambururen lanak.

Literaturako testutan kreatibitate askeko liburutara jo dugu gehienbat, eta horietan hizkuntzaren erabilera gutxien mugatzen edo lotzen duten motetara: antzerki, narraketa eta antzerakoetara, bereziki elkarrizketaren bizitasuna baztertzen ez dutenetara. Horra, bada, zegatik utzi diren alde batera testu erlijiosoak eta olerkaritza: haiek kreatibitate faltaz eta, zuzenean edo zeharbidez, itzulpen kutsukoak direlako; olerkaritza, aldiz, metrikaz eta abarrez arautuegia eta, ondorioz, kutsu artifizialekoa delako.

Ahal izan dudan heinean —neronek kontsultatu eta ikusi izan dudan heinean, hain zuzen—, lehenengo edizioa ematen dut, batez ere lehenengotik hurrengo edizioetara aldaketarik izan bada. Azken aldi honetan, ulergarritasun haundiagoaren amorez edo, ortografia eta morfologia bera ere aldatzen duten edizio berriak agertzen ari dira. Dialektologiaren ikuspegitik hau ez da mesedegarri, kaltegarri baino; aurreneko edizioetan idazlearen eta hizkelkiaren ezaugarriak gardenago agertu ohi dira.

Bibliografia horrez gain, aldizkariren batzu ere aipa genitzake, hala nola, Iparraldeko «Gure Herria», «Gure Almanaka» eta «Maiatz».

Eta amaitzeko zera esan nahi nuke, bibliografia hau hurbilketa bat besterik ez dela, orientabide eta lagungarri bezala eskainia eta, azken finean, euskalkien bitartez euskara hobeto ezagutu eta menderatzeko bitarteko bezala.

BIZKAIERAZ

- ARRIZABALAGA, J. J. «MARKIÑA»: *Markiña zarra kontu kontari*, Ermua, 1978.
BILBAO, F.: *Ipuin-Barreka*, Bilbao, 1959.
BILBAO, M.: *Ipuinak Gernika ondoko euskeran*, Euskeraren Iker atalak 2, Labayru Ikastegia, 1983.
BUZTINTZA, «KIRIKIÑO»: *Abarrak*, Abando, 1918.
ERKIAGA, E.: *Arranegi*, Zarautz, 1958.
ETXEITA, J. M.: *Josecho*, Durango, 1909.
ETXEITA, J. M.: *Jaioterri maitia*, Durango, 1910.
GARRO, B. «OTXOLUA»: *Bertolda eta Bertoldin*, Bilbao, 1932.
HOLMER, N.; ABRAHAMSON, V.: *Apuntes vizcaínos*, ASJU III (1969), ikus: 171-228.
or.
PUJANA, P.: *Olaetako euskal aditza*, Vitoria, 1979, ikus: 151-155. or.
SAN MARTIN, J.: *Zirikadak*, Zarautz, 1960.
SAN MARTIN, J.: *Estenkadak*, Zarautz, 1965.
ZAMARRIPA, P.: *Anayak gara*, Bermeo, 1929.
ZIARSOLO, M. «ABELETXE»: *Gazi-gazak*, San Sebastian.

GIPUZKERAZ

- ALKAIN, I.; ZAVALA, A.: *Gerrateko ibillerak* (hiru ale), Tolosa, 1981.
ARRIZABALO, J. M.; ZAVALA, A.: *Baso-mutillak*, Tolosa, 1979.
ATAÑO: *Txantxangorri kantaria*, Tolosa, 1979.
EIZAGIRRE, J.: *Ekaitzpean*, Buenos Aires, 1948.
ETXAIDE, Y.: *Alos-torrea*, Zarautz, 1950.
ETXAIDE, Y.: *Puña-Puña*, Zarautz, 1953.
ETXANIZ, N.: *Antzerkiak- Kontu-kontari*, Zarautz, 1958.
LABAYEN, A. M.: *Jokoa ez da errenta*, Zarautz, 1960.
LAZKAU'KO, A.: *Oto ta Pototo*, Zarautz, 1969.
LINAZASORO, I.: *H-gabeko umoria*, Zarautz, 1970.
OLAIZOLA URBIETA, M. «UZTAPIDE»: *Lengo egunak gogoan* (Bi ale), Tolosa, 1974.
SALAVERRIA, S.: *Neronek tirako nizkin*, Tolosa, 1964.
URRUZUNO, P. M.: *Sasiletrau baten ziria, ta abar*, 1973.
ZENBAITEK: *Elezarrak-Arraun ta Amets*, Zarautz, 1955.
ZENBAITEK: *Periyaren zalapartak*, Tolosa, 1963.

GOI-NAFARRERAZ

- ASTIZ ODERIZ, A.: *Goldaraz'ko bersolaria'ren kontu eta bersoak*, Pamplona, 1960.
HOLMER, N.: *El idioma vasco hablado*, San Sebastián, 1964, ikus: 109-165. or.
INTZA, D.: *Naparroa-ko Euskal- esaera zarrak*, Pamplona, 1974.
IRIGARAY, A.: *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca*, Pamplona, 1958. Ikus: F. Irigaray «Larreco» 131-193. or.
IZAGIRRE, K.: *Altsasuko euskeraren gai batzuk*, ASJU I (1967), 86-93. or.
IZAGIRRE, K.: «*Ultzamako euskeraren gai batzuk*», BSVAP XXII (1966), ikus batez ere: 456-467. or.
IZETA, M.: *Dirua galgarri*, Zarautz, 1962.
IZETA, M.: *Negarrez sortu nintzen*, Donostia, 1962.
N'DIAYE, G.: *Structure du dialecte basque de Maya*, La Haya, 1970, ikus: 238-242. or.

LAPURTERAZ

- ARIZTIA, M.: *Amattoren uzta*, San Sebastian, 1982.
ELISSAMBURU, J. B.: *Piarres Adame Saratarra. Zenbait historio Lapurdiko eskuaran, 1888*.
LARDAZABAL, P.: *Bordaxuri*, Tolosa, 1962.
LARDAZABAL, P.: *Herri bozak edo nor alkate*, Tolosa, 1962.
LARDAZABAL, P.: *Ihauteriak*, Zokoa, 1962.

BAXE-NAFARRERAZ

- ARBELBIDE, X.: *Irri solas*, Iruñea, 1983.
ETXAMENDI: *Azken elurra*, Bayona, 1975.
ETCHEBERRY, J. B.: *Orotarik*, Bayonne, 1974.
ETCHEBERRY, J. B.: *Obrak mintzo*, Bayonne, 1971.
ETCHEPARE, J.: *Buruxkak*, Donostia, 1980.
HIRIART-URRUTY, J.: *Zezenak errepublikan*, Donostia, 1972.
HIRIART-URRUTY, J.: *Jauna dut argi*, Donostia, 1977.
IRIGARAY, A.: *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca*, Pamplona, 1958, ikus: E. Zubiri «MANEZAUNDI».
ITURRALDE, P.: *Murtuts eta bertze*, 1982.
LANDART, D.: *Hogoi urte...*, Baiona, 1969.
LANDART, D.: *Aihen ahula*, Donostia, 1978.
LANDART, D.: *Erranak erran*, Donostia, 1978.
MOULIE, J. «OXOBI»: *Oxobi-ren lan orhoitgarri zonbait*, Baiona, 1966.
NARBAITZ, P. «ARRADOY, P.»: *Katalinen gogoetak*, Bayona, 1955.
SALABERRY, E.: *Ene sinestea. Iragan biziari gibeletik beha*, Zarautz, 1978.
SALABERRY, E.: *Beñat adiskidea agur!*, Zarautz, 1981.
SATRUSTEGI, J. M.: «*Xukako aditz joskera Luzaideko mintzairan*», *Iker-1*, 1980 (343-354. or.)
ZUBIRI, E «MANEZAUNDI»: «*Piarrechen izialdura*», RIEV 25 (1934), (272-73. or.)

ZUBERERAZ

- ALTABE: *Ciberouko botanika edo lantharen Jakitaitia*, Bayonne, 1900.
BORDAÇARRE «ETXAHUN-IRURI»: *Santxo Azkarra*, Donapaleu, 1963.
BORDAÇARRE «ETXAHUN-IRURI»: *Chiquito de Cambo*, Maule, 1973.
BORDAÇARRE «ETXAHUN-IRURI»: *Pette Beretter*, Pau, 1973.
CASENAVE-HARIGILE, J.: *Santa Grazi Pastoral*, Oiñate, 1976.
CASENAVE-HARIGILE, J.: *Ibañeta Pastoral*, Oiñate, 1978.
CASENAVE-HARIGILE, J.: *Pette Basabürü*, Bilbo, 1980, (79-140. or.)
EPPHERRE, G.: «Aita P. Lhande Ziberotar Euskalzaiñaren orhitzapenez», *Euskera*
V (1960), 5- 19. or.
LARRASQUET, J.: «*Beñat Larraja'ko belhagilli*», RIEV XXII (1931), 229-40. or.; eta
RIEV XXVI (1935), 137-145. or.

BIBLIOGRAFIA NAGUSIA

Bibliografiari buruzko oharren bat

Bibliografia honek bi sail ditu: eduki zerrendako lehenengo bi gaiiei dagokiena, bata, eta euskalkiei buruzkoa, bestea.

Lehenengo bi gai horiek dialektologia orokorrerako sarrera gaiak direnez, hemen lagungarri edo orientagarri gerta daitezkeen zantzen liburu aipatzen dira. Hastapenatarako horiekin aski izango da; sakondu nahi dutenek, berriz, lan horietan bertan aurkitu ahal izango dute bibliografia ugaria.

Zuzenean euskal dialektologiari dagokion saila bestea da, eta horregatik sail hau ez da liburuan agertzen diren euskalkietara mugatzen. Bibliografia honek osoa nahi luke izan, dialektologi ikuspegiz egindako lan denak jaso nahi lituzke.

Euskarari buruzko lan asko, ezinbestean, euskalkietan oinarritu izan dira, euskalkietan idazten bait ziren testuak. Esaterako, Villasantek Axularren perpaus kausalak aztertzean, haren euskalkia aztertzen du eta, bidebatez, lapurtera, XVII. mendekoa bada ere. Hau ere, zeharbidez, dialektologiatzat har daiteke, eta, ez da dudarik, lagungarri bikaina dateke lapurtera aztertzeko. Hala ere, hori bezalako lanak ez dira jasotzen, ez bait dute euskalkia bera espreski aztertzen.

Alderdi horretatik ulertu behar da lehen esaniko dialektologi ikuspegia. Hemen euskalkiak aztertu edo eta deskribatu dituzten lanak eta euskal dialektologiaren aldetik interesik ager dezakeen beste edozein lan sartzen da. Baita oso azaleko edo kanpoko zehaztasunak ematen dituztenak ere, euskalkiaren egoera, esaterako, mintzaleen kopurua, mugak eta kronologia, euskalkia irakaskuntzan edo beste soziolinguistikako edozein alderdi ematen dutela.

Gutxi gora behera, hiru motatako lanak bildu dira:

- Ugarien, euskalkiez azterketa linguistiko edo filologikoak.
- Euskalkien kanpo-historiazkoak. Hauetan, gehienbat hegoaldeko Goi-nafarrerari eta Arabakoari buruzkoak dira.
- Galdurik edo galtzear diren euskalki eta azpieuskalkietako testuak. Testu hauek hegoaldeko Goi-nafarrerarenak eta Pirineoetako euskalkienak (aizkera, zaraitzera, erronkaria) dira. Honek badu arrazoi garbia: inork euskalki edo azpieuskalki hauetakoren bat, esaterako, erronkaria edo Lizarra inguruko euskara, aztertu nahi balu, ezinbesteko lituzke testu horiek nahiz eta azterketa linguistikorik ez izan.

Zein lan utzi da bibliografiatik at?

Esan bezala, euskalkiak asmo bereziz hartzen ez dituztenak, edo, bestela esan, dialektologiari zeharbidez baizik ez dagozkietenak.

Antzerako arrazoa bide gelditu dira kanpoan edozein euskalki lantzeko beharrezko diren liburu banaka batzuek, Mitxelenaen «Fonetika», Azkueren «Hiztegia» eta «Morfoloia» Bonaparteren «Aditza kuadrotan»...

Alde batera utzi dira, baita ere, testu hutsak biltzen dituztenak, hau da, analisi linguistiko edo filologikorik gabe ematen direnak. Bapatean datozkirate, esaterako, Bonaparte Printzearen materialen argitalpenak. Izan ere, ez dira zuzenean jasoriko materialak; eta, gianera, testu erligiosoen itzulpenak izateak eta dialekto literaritarak eginak eragozpen galantak sortzen dizkiote ikertzaile zorrotzari. Dena dela, honek lehen argitu dugun salbuespena du: euskalkiari buruz ezer lantzekotan testu horiek beharrezko direnekoa.

Amaitzeko zera gaineratu nahi nuke, lan honek bazuela ahalik eta zehatzena izateko asmorik; alegia, eta sail honetan nabaria zen beharra ganoraz betetzeko-rik ere. Halaz ere, neronek ikusten dut garbien lana guztiz burutzea ez dela gauza erraza. Batetik, geldituko zen zenbait lan jasotzeke han-hemenka; bestetik, usutzen doaz, zorionez, dialektologi lanak. Ni abitu egin naiz, errespetu haundiz, eta honek hein batean zurituko nau.

Hutsuneak hutsune, alor honetan lan egin nahi dutenei lagungarri on gerta dakiekeela uste dut, eta hori horrela gertatuko balitz, lan honek bere aurreneko helburua ongi baizen ongi erdietsia izanen luke. Niri dagokidanez, ordea, luzarorik gabe lana guztiz burutzen ahaleginduko naiz eta esker onez onartuko ditut hutsuneak betetzeko laguntzak.

0. OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- ALLIERES, J.: «Petit Atlas Linguistique basque-français 'Sacaze'», *Via Domitia* VII-VIII, 1961.
- AZKUE, R. M.: *Morfología vasca* (Hiru ale), Bilbao, 1969.
- AZKUE, R. M.: *Diccionario Vasco-español-francés*, Bilbao, 1969.
- BONAPARTE, L. L.: *Le verbe basque en tableaux*, Londres, 1869-72.
- BONAPARTE, L. L.: *Carte de sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous dialectes et variétés*, Londres, 1871-2.
- MITXELENA, K.: *Fonética histórica de la lengua vasca* (2. argi), San Sebastian, 1977.
- YRIZAR, P.: *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (Bi ale), Donostia, 1981.
- VAN EYS: *Grammaire comparée des dialectes basques*, Paris, 1874.

I. GAIA

- ALVAR, M.: *Estructuralismo, Geografía lingüística y dialectología actual*, Madrid, 1979.
- COHEN, M.: *Manual para una sociología del lenguaje*, Madrid, 1973.
- COSERIU, E.: «La geografía lingüística» in *El hombre y su lenguaje*, Madrid, 1977.
- FISHMAN, J.: *Sociología del lenguaje*, Madrid, 1979.
- HOCKETT, F.: «Idiolecto, dialecto y lengua», «La geografía lingüística» in *Curso de lingüística moderna*, Buenos Aires, 1971.
- LABOV, W.: *Sociolinguistique*, Paris, 1979.
- LEFEBVRE, H.: *La langage et la Société*, Paris, 1966.
- POPP, S.: *La dialectologie. Aperçu historique et méthodes d'enquêtes linguistiques*, Lovaina, 1950.
- MARCELLESI, J. B.: *Introducción a la Sociolingüística*, Madrid, 1979.
- SCHILIEBEN-LANGE, B.: *Iniciación a la Sociolingüística*, Madrid, 1977.
- URIBE VILLEGAS, O.: *Sociolingüística*, Mexico, 1970.
- ZENBAITEK: *Bulletin de la Faculté des Lettres de Strasburg*, 5-6, 1957.

II. GAIA

